



ARGIA

Hauetako zein zuhaitz izendatzeko gai zara?

Euskal Herriko
26 ikastetxetan egindako
ikerketak landareekiko
ezezagutza agerian jarri du

» **EUROPAK INOIZ BAINO DIRU GEHIAGO BIDERATUKO DU ARMAGINTZARA**

» **JAUME ROURES: "KATALUNIAKOA GAIZKI BUKATZEN BADA HURRENGOAK ZUEK IZANGO ZARETE"**

» **BROKEN BROTHERS BRASS BAND: IRUÑEA NOLA BELZTU MUSIKAZ ETA JARRERAZ**





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian


argia.eus/eginargiakoa

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Europar Batasunaren aurrekontuetan nola nagusitu den armagintza

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta
- 18 Bixente Serrano
- 19 Mikel Irizar
- Leire Narbaiza
- 20 Irati Elorrieta



Jaume Roures, ikus-entzunezkoen magnate ezkertiarra.

DANI BLANCO

- 31 GORPUTZA
- 39 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIAKO AZOKA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKAK
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: JUAN CARLOS MORENO CABRERA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Jaume Roures: "Urriaren 1eko irudiak mundu guztiak ikusi ditu eta niri leporatzen didate" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Landareak: Aurrean ditugun arren ez ditugu ikusten / Hainbat egileren artean
- 28 | Ramón Font: "Kataluniako eraikuntza nazionalen funtsezkoa izan da eskola" / Mikel Garcia
- 32 | Inaciu Galán y González: "Asturierari dagokionez, hizkuntza kontzientzia gora ari da" / Onintza Irureta
- 34 | Despopulatzea Nafarroan: Basamortua menditik harago? / Urko Apaolaza
- 36 | Edward Chu, Navajo herriarekin lan egiten duen mediku eta antropologoa / Igone Mariezkurrena
- 44 | Broken Brothers Brass Band: Musika beltzen txertaketa / Xalba Ramirez

ALDIZKARI HAU IRAKURRI OSTEAN, EMAN NORBAITI EDO UTZI LEKU PUBLIKO BATEAN. BILDUMAGILEA EZ BAZARA, NOSKI.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maddi Txintxurreta, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BEREAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



POLICIA



PANORAMA

Espainiako "Justizia", berriz ere

Sumina zabaldu zen Euskal Herriko bazter guztietara 2016ko sanferminetako eraso sexistaren epaiaren berri jakin orduko. Eta oraindik ezin onarturik gaude. 18 urteko gazte bat, hiru metro koadroko gelatxo batean bost gizon heldu eta indartsuagoren artean behin eta berriz bortxatu, bideoz grabatu, emakumeari mugikorra lapurtu eta segituan kalean bakarrik negar batean abandonatuta, ez baita biolentzia Espainiako "Justiziaren" begietara. Une hartan biktimak ez ei zielako behar bezala aurre egin. Eta, gainera, hiru epailetako batek bortxatzaileentzat absoluzioa eskatu du bortxaketaren irudietan "emakumeari eszitatuta" antzematen zitzaizolako. Matxismoa arazo estrukturala dela esaten urteak daramatza feminismoak. Horren frogarik gordin eta gardenena da kasu hau. "Gerra" hasi besterik ez da egin. Irudian: Iruñeko epaitegiaren aurrean bildutakoak epaia publiko egin zenean.

Argazkia: Ekinklik kolektiboa - Testua: Axier Lopez



“La Manada’ auziko mezua hau da: gure bortxatzaileei aurre egiten ez badiegu, gure bizitza arriskuan jartzen ez badugu, ez dela bortxaketa. Oso larria da”

@olgarodriguezfr



“Esan, nola frogatu behar da? Nork frogatu behar du? Nor epaitu behar da? Hilik nahi gaituzue, baina inoiz baino indartsuago gaude! #NikSinestenDizut”

@naizena_maddi



“Ezarritako espetxealdia zigor oso altua da”

Rafael Catalá, Espainiako Justizia ministroa



Auziko hiru epaileak (Francisco Cobo, Raquel Fernandina eta Ricardo Gonzalez) kargutik botatzeko sinadura bilketa abiatu dute sarean



‘La Manada’ko guardia zibilak eta militarrek soldataren %75a jasotzen jarraituko dute kartzelan



EAJ

EAJ eta PPren gobernua akordiora iritsi dira: pentsioen igoera, aurrekontuak erraztearen truke

Argia

Espainiako Gobernuak onartu du pentsioak Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) arabera igotzea 2018an eta 2019an, aurreikusita zegoen pentsio minimoen %3ko igoeraz gain. Gainera, 2023ra arte atzeratuko litzateke “jasangarritasun faktorea” deiturikoa, 2019an indarrean sartzekoa zena. Beste zenbait neurri ere adostu dituzte, adibidez, %56ra igoko dela alargun geratzeagatik pentsioa jasotzen dutenen oinarri erregulatzailea; eta hurrengo urtean oinarri hori %60raino igotzea.

Trukean, Aitor Esteban EAJk Espainiako Kongresuan duen bozeramaileak azaldu zuen bere taldeak kontra bozkatuko

zuela Rajoyren aurrekontuei jarritako osoko zuzenketa guztietan. Erabakiak asko leuntzen dio bidea PPri, Espainiako Estatuan indarrean jarri nahi dituen aurrekontuek aurrera egin dezaten.

Kataluniako egoerak dirudi EAJren eta PPren arteko erabateko elkar ulertzean geratzen den azken pieza, baina aurrekontuek bizirik eutsiko dute maiatzaren 22tik aurrera. Epe hori da muga Katalunian presidentea aukeratzeko marra gorria. Inbestidura horrekin, 155. artikulua kenduko litzateke eta EAJk posible izango luke aurrekontuen babesari buruz esandakoari eustea –alegia, ez zuela Rajoy babestuko 155. artikulua Katalunian indarrean zegoen bitartean–.

“Bertigoia eta beldur handia sentitzen dugu, gure seme-alaben bizitzengatik”

ISABEL POZUETA, ALTASUKO GURASOEN BOZERAMAILEA

Fiskalak 12 eta 62 urte arteko espetxe-zigorra eskatzen jarraitzen duela ikusita, “bertigoia eta beldur handia sentitzen dugu, gure seme-alaben bizitzengatik. Fiskaliak interes handia du hau guztia terrorismo ekintzatzat jotzeko. Erakutsi dugun bideoa [istiluaren ostekoa] oso inportantea da: bertan ikusten da jai giroan daudela, sarjentoak alkandora zuria garbi-garbi duela, berak egindako deklarazioak gezurtatuz, eta erakusten du inor ez dagoela inor iraintzen edo sarjentoari alde hemendik oihukatzen”. **2018-04-26**



FAUNA PUBLIKOA

“[Kanbon egingo den] ekitaldia Euskaditik kanpo dago eta ETAk Euskadin izan du eragin handiena”

Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea (Twitter)

Kanbo eta Kanbodia: antzeko parezido



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Irakurri ote ditu Josu Erkorekak bere alderdiaren estatutuak? Enekoitz Esnaola *Berria*-ko kazetariak bai, eta honakoa aurkitu du oinarri nagusietan: “Euzko Alderdi Jeltzaleak Euzkadi du Aberritzat, eta euskaldun jendea bizi den Pirinioetako bi aldeetara dagoen lurraldetzat”. 2016an berretsi zuen Alfa eta Omegaren partiduak aberriaren definizio hori, Baluarte jauregian egindako VII. Batzar Nagusian. Alegia, Iruñean –Euskaditik kanpo?–.

Bai gauza elastikoa gure aberria: abertzaletasunaren subjektu politikoa Aturritik Ebroraino estiratzen da garaipen elektoralean igande gauetan; eta administratzen duguntxora mugatzen biharamunean, Excel taula ireki bezain pronto. Proiektu amankomunarentzat izen bat adostea ere ez da lortu oraindik –Euskadi? Euskal Herria? Azkenaldiko Basque Country *postmo* hori?–, eta Jaurlaritzako bozeramaileak pausotxo bat gehiago eman du, Kanbo eta Kanbodia distantzia psikopolitiko berdintsuan jarritz.


EAEko Gobernuak izango ditu, noski, benetako arrazoi taktikoak Kanboko ekitaldira ez joateko; baina zein diren publikoki esplikatzeko gogo handirik ez. Erkorekarena ez da, ordea, irtenbiderik eleganteena. Aitzakiak behar bazi-tuen, guk baditugu hobeak. Adibidez: “Egun horretan lupia labea edukiko dut eta badakizu zenbat arreta eskatzen duen”. Edo: “Joango nintzateke, baina eske arratsaldea erdibitzen dit”. Aitzakia kulturalak ere funtziona: “Eta orain abisatzen didazu? Fito & Fitipaldisen kontzerturako sarre-rak dauzkatzat, *desolé*, ezin dut joan”. Eta nola ez, familiak: “Ui, keba, keba, imposible: alaba asteburu osorako kanpora doa eta kotxea utzi behar izan diot”.

Denak ere aproposagoak, beste euskal herritarrei nazio-tasuna ukatzea baino. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



KANBO, 2018KO MAIATZAREN 4a...



ANALISIA



Badago zertaz lotsatu eta izutu



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ETAk eragindako kaltea onartu du. ETArek agiria bi testutan heldu da. Batean, “eragindako kalteari buruzko adierazpena” helarazi dio Euskal Herriari. Bigarrena adierazpenari buruzko argibide oharra da. ETAk egindako mina onartzea ez da harritzekoa, areago, bera sostengatu izan duten herritarrentzat –ETAk Euskal Herria deitzen duenentzat– lasaigarria da. Edonola ere, adierazpenari buruzko “argibide oharra” idatzi behar izateak gatazka ebazteko egun lantzen ari den moduak ez du normalizazio politikoa bermatuko.

Bi arrazoik egin dute posible ETArek agiria: bat, politikoki ez duela deus galtzerik ez irabazterik ere. Ez ETAk, ez politikoki historikoki berarengandik gertuen dagoen aukera politikoa. Bi, agiri horren bitartez, euskal preso politikoen etorkizunak hobera egin dezakeela. Hala ere, bigarren hau ez dago bermatuta. Areago, ETA desmobilizatuko da, presoak aterako dira kalera, baina inork ez du bermatzen etorkizunean preso politikoa, biktimak, borroka armatua edo “terrorismoa” izanen ez denik.

ETArek agiriak ez du dena esaten, ezinezkoa baita dena esatea. Erran nahi baitut, 1958ko, 1968ko, 1978ko... ETA, egungo ETA al da? Zenbat ETA izan dira sei hamarkadatan? Egungo ETAk hitz egin al du ETA guztietan aritu direnen izenean?

Gehiago esateko eta partekatzen haste-ko, agiria idatzi dutenek ETArek beraren 60 urteko kidegoekin hasi behar dute bizitakoa partekatzen, bizirik daudenekin behintzat. Kidego horietan suertegutietako herritarrak daude, mota guztietako biktimak, torturatuak, estatuek errepresaliatuak nahiz ETAk berak jazarriak, baztertuak edota hitz batean “damutuak”.

ETAk eragindako kaltea onartzea ez al da egindakoaz “damutzea”?

ETAk Euskal Herria deitzen duenak hasi lezake orduan gertatutakoa digeritzen. Eta guztia digerituta ere, hori egiteak ez du legea ezartzeko biolentziaren monopolioa dutenek “eurek eragindako mina eta inposizioa” aitortzea bermatuko. Espainiako eta Frantziako estatuek –ez berauek sostengatzen dituzten herritarrek ez agintariek– ez dute egindako minez eta kalteez ez “damu” ez dolurik aitortu beharrik. Euren legeek salbuetsita daude.

ETAk Euskal Herria deitzen duen horrek badu zertaz lotsatu, eta zertaz beldurtu ere. Ostera, zertan daude Euskal Herria horretaz harago eta honago daudekeen Euskal Herriak? Ba al dago Euskal Herria izaterik Espainia eta Frantzia izanda, ba al dago bi estatu hauek –ondoan– izan gabe?

Ba al dago Euskal Herria izaterik –ETAk Euskal Herria deitzen duen hori– ETA desegin edo amaitu otean? ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Bat eginik pentsionistak desmobilizatzeke



Juan Mari Arregi

PPren Gobernuak fronte asko dauzka irekita eta galera handia izan dezake bere boto-emaileen artean. Pentsionisten sektorea –botoak lortzeko garrantzitsuenetakoa– muturrerantz zihoakion, Espainiako Estatuan mobilizazio gero eta handiagoekin. Eta mobilizazio horien buru Hego Euskal Herriko pentsionistak jarri dira, hortik boto asko lortzen dituen EAJri ere eraginez.

PPren eta EAJren interesak batu egin dira Estatuko Aurrekontu Orokorrek salbatzeko, pentsionistak hauteskunde-merkantzia balira bezala erabilia. Horretarako, lehen ezinezkoa omen zena dirurik ez zegoelako, orain posible da, bi alderdientzat hauteskunderi begira onuragarria delako, eta KPI-aren hazkundeari loturiko %1,5eko igoera adostu dute aurtengorako eta hurrengo urterako. Lortu dute, era berean, pentsionisten arteko batasuna haustea, batzuentzako agian nahikoa izango delako igoera, mobilizazioen ondorioz lortua gainera. Beste askok ordea, batez ere Hego Euskal Herrian, ez dute hori uste.

EAJri oroitarazi behar zaio igoera horrek hilean batez beste 10 euro gehiago ekar dezakeela soilik; 700 eurotik behera kobratzen duten 247.000 euskal pentsionistentzat oso gutxi da. Bertoko pentsionisten plataformek aldarrikatu dute pentsioak 1.080 euro arte osatzea, orain hori erabaki izan balitz, orduan bai sinesgarria litzateke.

Estatuko aurrekontuak –itxura guztien arabera EAJren babesa izango dutenak–, antisozialak, militaristak eta birzentralizatzaileak dira. Jeltzaleak Gernikako Estatutua bortxatzen duen gobernu ustel baten ondoan jarri dira. Benetan fidatu daitezke due- la dozenaka urte sinatu baina oraindik eskumenak transferitu ez dituen gobernu batez? Zeinek bermatzen du akordioa beteko dutela?



SET SAREA

Turismoak kaltetutako hirien sarea aurkeztu dute

EUROPA. Azken hilabeteetan elkar topatu eta kezka partekatu dituzten Europa hegoaldeko hainbat herri mugimenduk SET sarea sortu dutela jakinarazi dute: Turistifikazioaren aurrean dauden Europa hegoaldeko hirien sarea. "Elkarlanak aberastu eta indartu egiten gaituelako, harremanak estutzeko asmoa dugu. Geure burua antolatzen ari gara geure eskubide sozialen defentsan, bereziki etxebizitza duin eta eskuragarri baten eskubidearen alde". Iruña eta Donostia sareko kide dira. Irudian, aurkezpen bideoeko fotograma.

Maila ekonomiko baxuko EAEko 10 ikasletik 7k ghetto-eskoletan ikasten du

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

EAEko hezkuntzan ematen den segregazio sozioekonomikoaren hazkunde kezka-garriaz ohartarazi du Save The Childrenek. Erakundeak kaleraturiko txostenaren arabera, egoera sozioekonomiko txarrean dauden ikasleak kontzentratzen dituzten "ghetto-eskoletan", ikasleen %68,8k profil sozioekonomiko baxua du.

Segregatzailea

Eskola-segregazioan Estatuko indize altuena dutenen artean, laugarrena da EAE. Indizea handitzen joan da azken hamar urteetan, "ghetto-eskolak" direlakoak areagotuz.

Behar bereziak

Kontzentrazio maila altuko 10 ikastetxetatik 9 publikoak dira. Hizkuntza-laguntza jasotzeko beharrak dituzten ikasleak kontzentratzen dira hauetan, eta behar bereziak dituztenak.

Neurriak

Desorekari aurre egiteko, hainbat neurri proposatzen dira txostenean, administrazioak esku hartu dezan matrikulazioan, kuotetan eta konpentsazio-politiketan.

GAROÑA



milioi euro bideratzeko asmoa du Espainiako Gobernuak, Garoñako zentralaren hondakin erradioaktiboen biltegia egiteko, Garoñan bertan.

2018

urteko aurrekontuetan aurreikusi du PPK diru-partida. Biltegia Enresak eraikiko du, erradioaktibitate handiko hondakinak biltzeko.



GAIKAKO BILKETA

Espainiako Auzitegi Gorenak San Marko mankomunitatearen 2014ko aurrekontuekin egin bezala, EAEko Auzitegi Nagusiak 2016koak baliogabetu ditu, Atez Ateko bilketan ari diren Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo udalei arrazoi emanaz.



TRANSEXUALITATEA

Sexu aldaketaren protokoloa aldatuta, Eusko Jaurlaritzak onartu du pazienteak lehendabizi endokrinoarengana joatea psikiatrarengana ordeztu sailean. Hormona tratamendua jasotzeko denbora hainbeste ez luzatzea da xedea.



SINDIKALGINTZA

EAEko UGT sindikatuaren zuzendaritzak erabaki du elkarriketa sozialerako mahaia uztea, CCOO sindikatuak ere beste hainbeste egin ostean. ELA eta LABek hasieratik ez zuten parte hartu. Sindikatu guztiak mahaitik altxata, kolokan geratu da EAEko elkarriketa soziala.

Europar Batasunaren aurrekontuetan nola nagusitu den armagintza



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Telebistetako tertulietatik eta ostatueta ektabaidetatik urrun, administrazio publikoen erabaki garrantzizkoenak urteroko aurrekontuetan ezkututzen dira. Europar Batasunak berrikitan onartu duenak gordeta darama herritarren etorkizuna sakon markatuko duen aldaketa: milaka milioi euroko diru-laguntzak emango dizkie Europak armagintzako industriei, batik bat drone, robot eta bestelako arma automatizatuak ekoiztu eta munduan zabal ditzaten.

“Ez onartu arma industriaren ikerketa sartzeara Europar Batasunaren aurrekontu berrian. EBren diruak ez du joan behar teknologia militarra. Ikerketarako diruek joan behar dute gatazkak prebenitzeko bide ez bortizetara, eta partikulariki munduko ezinegonaren sustraletara doazenetara”. Dagoeneko 143.000 europarrek sinatu dute *EB: ez inbertitu armatan* izenburupean interneten dagoen eskaria.

“Denok bizi nahi dugu mundu baketsu batean –diote agirian– eta horretarako sortu zen Europar Batasuna. Baina Europako Batzordeak, arma industriaren presioaren mende, aurrekontuetan sartu nahi ditu milaka milioi diru publikoetatik EB sortu zenetik lehenbiziko aldiz teknologia militar aurreratua garatzeko. Haiek ‘defentsa’ kontu bat bezala aurkeztu arren, diru-laguntzen egiazko helburua da sustatzea arma industriaren lehiakortasuna eta esportatzeko ahalmena, tartean Saudi Arabia bezala gatazka hiltzailetan parte hartzen duten herrialdeetara”.

Protestak gora-behera, Europako Parlamentuak martxoaren 13an onartu zuen 2019-2020 urteetarako 500 milioi euroko multzo bat defentsako ekipamenduak garatzeko. Lehendik ikerketa militarren prestaketarako onartutako 90 milioi gehiago gehitu behar zaizkie. Hasi baizik ez da egin aldaketa: iaztik Europako Batzordeak iragarritako dauka 2021rako sortu nahi duela urtero 5.500 milioi euro gastatzeko ahalmena izan-

go duen funts bat “defentsa europarra akuilatze”.

Inbertsio erraldoia aurkeztean, 2017ko ekainean, arrazoia hone-lazehaztu zuen Jyrki Katainen EBren lehendakariorde denak enplegu, hazkunde, inbertsio eta konkurrentziarako: “Europa osoan jendeak kezkatuta daude haien segurtasunagatik eta beren umeenagatik”.

Aldiz, ENAAT Armen Salerosketaren Kontrako Sare Europarrean uste dute EBk defentsa alorrean kasik ez gatatsetik oraingo plan handietara egin duen aldaketa sakona aspaldi hasitako kanpaina baten fruitua dela, Laetitia Sedouk Multinazionalen Behatokiari (*multinationales.org*) azaldu dionez: “Arma saltzaileak ate txikitik sartu dira, barne segurtasunaz eta mugen zaintzaz hitz eginez eta ez defentsaz. Pixkanaka iritsi gara honaino”.

2012tik 2017ra bitarteko bost urte laburretan, Europako arma konpainia nagusien artean antolatuta daukaten lobbyaren aurrekontua urteko 2,8 milioitik 5,6 milioira bikoiztu zen. Hori armagileek deklaratu sinestekotan: zenbait adituk dio ASD Europako Industria Aeroespazial eta Defentsakoen Elkar-teak lobbygintzan zifra horren hamar halako inbertitu zuela.

ASDko kide dira alorreko enpresa europar indartsuenak: Airbus, BAE, Dassault, Fincantieri, GKN, Indra, Leonardo, Liebherr, Rolls-Royce, Safran, Saab, Thales... Horiekin lotuta daude herrialde

bakoitzeko elkar-teak. Esate baterako, TEDAEk biltzen ditu Espainian industria militarrean ari diren enpresak, tartean EAEko batzuk: Aernnova, Tecnalia, ITP Aero, SAPA Placencia eta Sener.

Ingurumenaren orde armak hobetsi

2015ean Europako Batzordeak 15 laguneko Pertsonalitate Talde bat (GoP) izendatu zuen ondorengo urteetan ikerketa militarrean zer egin aholku eskatzeko. Zerrendako izenak eta bakoitzaren kargua ikusi baizik ez dago ohar-tzeko armagintzaren kritikoek ez dutela arrazoirik falta: ia denak dira ASD industria militarrearen patronalaren bu-ruak. Batzorde horrek gomendatu zuen industria militar europarrak lehiakortasuna hobetu beharra daukanez Europar Batasunak finantziazio programa egoki bat eskaini behar ziola.

“Erabaki politikoen prozedura osoan esku hartu dute industrialek”, dio Bram Vranken Flandriako Vredesactie mugimendu bakezaleko ordezkariak. “Batzordea plan hau prestatzeko fasean gutxienez 36 aldiz elkartu da industrialekin. Ezin ukatu helburua lortzen ari ez direnik, aurrekontuetan sekulako dirutzak sartu baitituzte eta horiekin batera inbertsioen finantziazio plan samurrak ere bai: “%125eko diru-laguntzak lortu dituzte, %100 produktuetarako gehi %25 administrazio gastuetarako. Horrelako finantziazio bikainik ez zaie eskaintzen ezta munduko katastrofe larrienei aurre egin





I Stop the Arms Trade [Ni ere Arma Salerosketa Geldiarazten] erakundeak zabalduko irudian, ekintzaile bat odol koloreko tintaz zikindua: "Europar Batasunaren dirurik ez arma saltzaileentzat" dio atzeko afixak. Europak, estatuek eta baita gobernu autonomoek ere –EAEkoa barne– mundu osoan gerrak sutzen dituzten armen trafikoa diruz laguntzen dutela salatzen dute gerraren aurkako militanteek.

behar dieten Gobernuz Kanpoko Erakundeak ere".

Eta zein inbertsio lehenetsiko du EBk? Armen Behatokia elkartean ikertu duenez, droneak eta gerra egiteko sistema robotizatueta zentratzen dira hein handi batean ikerketa proiektuak: "Ikerketa berri guztietan ageri da robotizazioa, armak gero eta autonomoago izatea da helburua". Ondoren, ikerketa lerroak produktu zehatzetan mamitzen direnean, industrialak egoera hobean aurkituko dira puntako armak esportatzeko.

Esportazioen kontrolean datza gai honen eztabaidetako bat. Zeren eta armagintzako enpresek gero eta diru-laguntza gehiago eskuratu arren Europatik, esportazioen kontrolak jarraitzen baitu estatu bakoitzaren eskumena izaten. Alemaniak, Angela Merkelek SPD sozialistarekin egin duen itunean bildu

denez, kontrol europarra indartu nahi omen du. Frantziak, aldiz, ez du horrelakorik entzun ere egin nahi. Industria-lek presio egiten dute esportazioetan eskuak libre edukitzeko, lehiakortasunaren aitzakiarekin. Armada frantzesak ere ez du aldaketarik nahi horretan: "Frantziak eutsi behar dio bere interesak defenditzeko bere aldetik erabaki eta ekiteko ahalmenari".

Are gehiago, armagintzako industria-lek lortu dute diru-laguntzaz finantzatuak patente berriak beren jabetzan geratzea, Europako gizarteari horrek dakarkion kalte bikoitzarekin. Batetik, diru publikoz ordaindutako aberastasunak kapital pribatuak bereganatzen dituela. Bestetik, Europako aginte politikoaren kontrola galdurik enpresek teknologia eta patente horiek saldu ahal izango dizkiotela munduko edozein be-

zerori, baita edozein krimen egiteko gai direnei ere.

Europar Batasunaren gastu militarra da, kide dituen estatuenak batuta, munduko hirugarren handiena, AEBak eta Txinaren ondotik. Errusiak 69.200 milioi euro gastatzen badu, EBk 264.300 milioi. Diru-laguntza berriak nondik aterako ditu Brexitarekin aurrekontua murriztera behartutako Europak? Ekin-tzaile asko beldur da ingurumena eta klima izango direla pagaburuak.

Bitartean, Bakearen Aldeko Ikerlari-ek ere atxikimenduak biltzen dituzte EBren aurrekontua aldarazteko: "Europar Batasunak ikerketa militarreko programa ezartzeak sekula ikusi den azkartze handiena dakar Europaren militarizazioan. Orain garatzen ari garen teknologia militarren araberrakoa izanen dira etorkizuneko gerrak". ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI

OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




«Urriaren 1ean gertatu zenaren irudiak mundu guztiak ikusi ditu, eta nolabait, niri leporatzen didate»

Jaume Roures

Ikus-entzunezkoen magnate ezkertiarra

Jaume Roures produktore katalana eta Lluís Llach Iruñera etorri ziren martxoaren bukaeran *La revolta permanent* filma aurkeztera, Sanfermines 78 Gogoan ekimenak gonbidatuta. Otsailean, Guardia Zibilak Llarena epaileari emaniko txosten batean *procés*-eko "elementu ezinbestekotzat" jotzen dute Mediapro ikus-entzunezko edukien ekoiztetxe erraldoiaren jabea. Bere ustez, urriaren 1eko errepresioaren irudiak mundu osora zabaltu zituen nazioarteko prentsa gunea antolatu izana ordainarazi nahi diote.

Testua: Reyes Iltxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Errebolta amaigabera kondenatuta gauden?

Baietz dirudi. *La revolta permanent* ez da oroimenezko pelikula bat, zoritxarrez, gaurkotasun handiko gertakariak erakusten dituelako. 76ko martxoaren 3an Gasteizko lagunek bizi izan zutena, Iruñekoek 78ko sanferminetan, eta orain guk, gobernu erdia kartzelan dugula, bide beretik doaz. Jarraitutasun lerroa argia dago Fraga, Martín Villa, Fernández Díaz eta Zoidoren artean. Pentsamolde eta jokaera bera dute guztiek. Eskuinekoak izan edo PSOEkoak izan, lerro bera mantendu dute urte hauetan. Fraga sutsuagoa zen, baina argudioak berdinak izan dira beti eta guk haien erabakien ondorioak sufritzen jarraitzen dugu. Eta hemen hobe duzue

erne egotea, gure atzetik zuek etorriko zaretelako. Zuek badituzue hitzarmen ekonomikoak eta gauza horiek, hiritar arriskutsu egiten zaituztenak.

Hurrengo estatu hitzarmeneko lehen puntua hori izango da, ez dutelako ulertu nahi, batetik, askatasun kontzeptu zehatz bat, eta bestetik, historian zehar eta borroka eginez irabazi diren eskubide batzuk daudela hitzarmen horien oinarrian. Ez da soilik hilabeteen 1.000 euro gehiago defendatzea, oso errotuak dauden kontzeptu batzuen defentsa egitea baizik. Kataluniak oso gaizki bukatzen bada hurrengoak zuek izango zarete.


Orain Guardia Zibilaren txosten batean aipatu zaituzte.

Guardia Zibilarekiko nire aferak aspaldi

Jaume Roures Llop

Bartzelona 1950

Liga Comunista Revolucionaria eta IV. Internazionalako militantea izan zen. Ordutik trotskistatzat eta katalanistatzat du bere burua. Zortzi aldiz egon da kartzelan. 1984tik 2001era TV3 telebistan egin zuen lan. 1994an Mediapro sortu zuen, Espainiako Estatuan futbol emisio garrantzitsuenen eskubideak dituen ekoiztetxea. 2006an La Sexta telebista abian jarri zuen eta 2007an *Público* egunkaria. *La revolta permanent* eta *Las cloacas de Interior* dokumentalen bultzatzailea da. Hainbat film ere ekoiztu ditu.



hasi ziren. 83an gobernu sozialistarekin, Sáenz de Santamaría jenerala buru jarri zuten ZEN (Zona Especial Norte) ezarri berrian. Gobernu zentralako erregeordea zen. Nire etxean agertu ziren eta atxilotu ninduten esanez ETaren Bartzelona komandoari laguntza ematen niola. Handik egun batzuetara aske atera nintzen. Beti zain egon naiz ea norbait nire etxean agertu eta barkamena eskatzen zidan, baina ez. Barkamen eskearen orde, txosten berriak dira iritsi direnak. Azken honen inguruan esan dut bere egileek oso maila intelektual baxua dutela, batere mamirik ez dautkalako. Dena den, beste kasu batzuetan ikusi izan den bezala, mota horretako txostenek balio izan diete epaile prebarikatzailerei esateko Katalunian matxinada armatu moduko bat egon dela. Urriaren 1eko mobilizazio baketsu, eredugarri eta jendetsua otsailaren 23ko kolpearekin alderatzen dute. Epaile prebarikatzailak diodanean hizki guztiekin diot, horiek bezala errealtatea manipulatzeko ez delako irudimen handia izan behar, ostia txar handia baizik.

Ez duzu kartzelara joateko beldurrik esaten dituzun gauzengatik?

Nik ez dut legez kanpoko ezer esan. Esan dut badutela operatibo nagusi bateko buru torturatzaile izateagatik kondenatua izan den pertsona bat. Urriaren 1eko erreferenduma dela eta, Kataluniara bidali zuten Guardia Zibileko agintaria Diego Pérez de los Cobos zen, Guardia Zibil torturatzaileen sumario batean egon zena eta Kataluniako estatuaren etorkizuna aldarazi zuen Konstituzio Epaitegiko presidente izandakoaren anaia. Ez da kasualitatea. Diego Pérez de los Cobos aske utzi zuten, baina sumario hartan 1997an Kepa Urrea torturatu izana leporatuta, beste hiru Guardia Zibil kondenatu zituzten, nahiz eta gero Epaitegi Gorenak hamabi urtetatik sei urtera jaitzi zigorra eta Aznarrek 1999an indultua eman zien. Horietako bat Manuel Sánchez Corbí da, 2015ean UCO (Unidad Central Operativa) Guardia Zibilaren organo nagusiko buru izendatu zuten. Torturaren kontua ez da soilik egiten den izugarrikeria, horren atzean dagoen koldarkeria baizik. Torturatzailea munduko koldarreña da, babeserako aukerarik ez duen jendearen aurkako abusuak egiten dituelako.



Beste adibide bat: Valtoryc rap kantaria giltzaperatu duen epailea Enrique López da. PPren oso gertukoa eta Konstituzio Epaitegiko kide nabarmena zen, Madrilgo poliziak goizaldeko seietan moto batean, erabat mozkortuta eta kaskorik gabe atxilotu eta handik gutxira kargua utzi zuen arte. Ez zuten Konstituzio Epaitegitik bota. Modu diskretuan joan zen eta orain Auzitegi Nazionalan dago. Jendearen etorkizuna erabakitzen ari den jendilaje horren argazki on bat iruditzen zait hori. Horiek guztiak ez dira kasualitateak, lehenagoko jokamoldeen jarraipena baizik.

Altsasuko liskarra ere terrorismoa dela diote.

Altsasukoa frankismo berrituaren beste erasoaldi bat da. Ez dut konfiantza gehiegi justizia espainiarrean, baina espero dut gazte horiei epaiketa ongi ateratzea.

Francorik gabeko frankismoa da hau?

Trantsizioaren fruituak ari gara biltzen. Hau betebeharreko pausoa zuten agintzen segitu ahal izateko. Egokitzen joan

ziren, baina aginte makila utzi gabe. Orain, gainera, formei oso garrantzi gutxi ematen diete. Bost axola zaie. Horrela ateratzen da Atzerri ministroa BBCn esanez telebista kanal horretan emandako urriaren 1eko irudiak faltsuak direla edo Gobernuko presidenteordea agertzen da esanez irudi horiek robot bidez eginak direla. Oso larru gogorra eduki behar da halakoak esateko, baina berdin zaie agintearen malgukiak oso ongi lotuta dituztelako.

Gorria izatea eta gainera negozioetan arrakasta lortu izana da barkatzen ez dituztena?

Nik uste dut oraingo akusazioa lotuago dagoela urriaren 1ean antolatu genuen prentsa gunearrekin, ikusita, gainera, zer-nolako ondorioak izan dituen horrek nazioartean. Azken finean, han gertatu zenaren irudiak mundu guztiak ikusi ditu eta hori, nolabait, niri leporatzen didate. Guardia Zibilaren txostenean beti aipatzen dute hori eta erreferendumaren inguruko dokumentala. Inoiz ez dute Estatuko estolden dokumentala [*Las cloacas de Interior*] aipatzen ordea, beraiek



zuzenean inplikatzeko dituenak. Isilpean gordetzen dute, eta lortu dute ia inon ez agertzea eta ia inork ez hitz egitea horretaz, gaizki esaka aritzeko ez bada eta ikusi gabe, gainera. Ez dut uste iraganeko egin dudana inportakoa zaienik.

Madrilgo komunikabideetan zabor asko botatzen dizute gainera, marxista eta aberatsa zarela kritikatzu, adibidez.

Marxista izatea zer den ez dakitelako. Engels, adibidez, nahiko diruduna zen. Gertatzen dena da komunikabideak mekanismo baten parte direla, Estatuaren estolden dokumentalean erakusten genuen bezala. Dena epaitegietan eta polizia lotuta edukitzeaz gain, bada aparatuen egitura paralelo bat beste modu batez aritzen dena eta hor kokatzen dira komunikabideak.

Hasteko etsai bat bilatzen da. Horretarako txosten bat asmatzen dute, UCO-rena, poliziarena, epai batena... berdin dio. Eta akusazio horiek komunikabideen bidez zabaltzen dira, Madrilgo prentsa deitzen dugun horren bidez, batez ere. Haiek zaborra botatzen dizute gainera etengabe. Lehen bazuten Manos

Limpas kolektiboa, mekanismo argi bat, zarata mediatikoa probesten zuena eta epaileengana jotzen zuena zerbait ikertu behar zela esanez. Orduan auzibidean jartzen zintuzten eta hiru bat urtez egoten zinen linbo moduko batean, botatzen zizuten kaka guztiarekin eta jende guztiaren aurrean errudun aurkeztuta. Hiru urte edo antzeko denbora tarte bat pasatakoan, epaile batek esaten du ez dagoela delituri, baina ordurako mekanismoak funtzionatu du eta bere helburua bete du.

Orain oso agerian egiten dute hori guztia. Lehen Manos Limpiasek egiten zuena orain VOXek egiten du. Zigorra epaia baino lehen etortzen da.

Beste batzuek kritikatzeko dizute boterarentzat edo Ciudadanos alderdiarentzat lan egin izana.

Berdin zait. Nire lana lana da eta ez dut nire ideologiarekin nahasten.

Katalanista zara, baina ez independentista?

Katalanok gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea defendatzen dut.

Autodeterminazioa, erabakitzeko eskubidea alegia, oso oinarritzkoa da. PSOE-ren estatutuaren ere badago. Bada XIX. mendeko burgesiaren aldarrikapen bat. Ez gara deus estratosferikorik eskatzen ari. 100 urteko atzerapenarekin gabiltza. Hori da hainbeste jende biltzen duen zeharkako borroka. Independentismoa %48ra iristen da. Txalogarria bai, baina aski ez dena. Lan egin behar da autodeterminazioaren alde.

Katalunia Espainian segitzearen aldekoa zara?

Erabakitzeko une hori iristearen alde borrokatzearen aldekoa naiz. Baina, ondoren, prozesu hori aukera desberdinen arteko benetako eztabaida izan behar da. Ulertzen dut badagoela jende asko hainbat arrazoiengatik Espainiari lotuta sentitzen dena eta horretarako eskubidea dute, baina arrazoizko eztabaida egin behar da. Une honetan, errepresio giro honetan, zoritxarrez, ezin da egin. Beharrezkoa da libreki erabaki ahal izatea.

Eredugarria da Kataluniako jendearen jokamoldea?

Bai, bada. Guri indar handia ematen digu milioika pertsona kalera ateratzeak kristal bat bera ere apurtu gabe. Zazpi milioi herritarretatik, milioi bat mobilizatzerara iritsi gara. Ikaragarria da. Parisko atentatuaren aurka 200.000 pertsona elkartu ziren eta ikaragarria zela iruditu zitzaion jende askori.

Hemen, Euskal Herrian, izan liteke?

Ez dakit. Zergatik ez? Zuek hemen baduzue tradizio borrokalari sakona, modu desberdinetara gauzatu dena. Euskal Herriaren mobilizazio gaitasuna oso handia da eta gu ere parametro horretan gaude. Egia da hemen krisi ekonomikoa ez dela horren gogorra izan eta biolentziak jendartearen banatu dela. Orain, hain zuzen ere, bukatu berri dugu Amnistia Internazionalaren dokumental bat. Landutako bost puntuetako bat da sufrimendua Euskal Herrian, eta hainbat aldetako pertsonen mina erakusten da. Egin beharreko berrikuspen zabala da.

Filma bukatuta dago eta ea telebistaren bat konbentzitzen dugun emateko, bestela Youtube-n zintzilikatuko dugu. Filman argi ikusten da azken hamar urteotan Mozal Legearekin eta eite

horretako beste neurriekin atzerakada ikaragarria gertatu dela askatasunean. Indar basatia erabiltzen dute Estatuak eta epaitegi batzuek, eta bost axola zaie. Hala ere, ezin dugu galdu irabazi dugun apurra. Lortutakoa gutxiegi zen, baina ezin dugu ihes egiten utzi.

Zer gertatuko da Katalunian, zure ustez?

Ez dakit. Kezkatzen nauen gauza bakarra da mugimendua, *proces*-a, abiarazi duen indarra nekatzea edo banatzea. Nabaria da buruzagiek akatsak egin dituztela, batzuk larriak, baina ez ditut horregatik gutxietsiko. Berbideratu egin behar da dena, baina garrantzitsuena mugimendua ez ahultzea da. Madrilen fokua pertsona batzuegan jartzeko joera dute, baina hau kaleko kontua da. Horrela joan da mundua aldatzen orain arte, ez politikari bati zer-bait bururatu zaiolako, baizik eta alda-ketak egitera behartu duen mugimendu soziala dagoelako. Hori gertatu zen adibidez zerbitzu militararekin. Jendeak ez du gogoratzen, baina 220.000 pertsona izan ziren soldaduskara joateari uko egin ziotenak eta horietarik 300

Off the record:

"Ez naiz modeloa!"

Roures pertsonaia berezia da. Buru argia, zorrotza, antolatzaile bikaina, negoziatzaile zuhurra eta eskrupulu gutxikoa, batzuen ustez. Horregatik da Espainiako Estatuko pertsona aberatsenetako bat. Lotsatia, gaixobera eta malenkoniatsua (horregatik omen *melan* ezizenez, *melancólico* hitzetik eratorria). Gurekin adeitasunez aritu zen solasean, nekatu zen arte. Minutuak pasa ahala, bere ahotsa indarra galtzen joan zen, solasaldia amaitutzat eman arte. Orduan, argazkiak egiteko unea iritsita, heldu zen sorpresa: argazkirik ez. "Ni ez naiz modeloa. Argazkilariaren aurrean jarri nahi dudanean jarriko naiz, baina orain ez. Komunera noa. Agur". Dani Blanco lankidea eta biok aho bete hortz.

kartzelara eraman zituzten. Aldea da orduko hartan komunikabideak ez zeudela aurka. Jarrera epela zuten. Orain isurtzen duten kaka guztia bota izan balute, ziurrenik ez zen horren ongi bukatuko.

Komunikabide librean beharra inoiz baino handiagoa da?

Bai, baina ezkerak ez du inoiz komunikabide eraginkorrak sortzeko edo daudenak bultzatzeko trebezia izan. Edozein etorri berrirengan jartzen dute konfiantza eta gertatzen da gertatzen dena. Ahulezia handia da. Katalunian gogor erasotzen ari dira TV3, baina Kataluniako ikusleen %15 besterik ez du. Gainerako %85ak jasotzen duena zaborra da, mezu negatiboak *proces*-aren inguruan.

Zer garrantzi dute sare sozialek?

Egia da lehen ez zeuden tresna berriak badirela, baina su ahalmen gehiago behar da. Komunikabideak behar dira sare sozialetan esaten dena laguntzeko. Jarraitu behar da lanean, hemen inork ez dizulako deus ere debalde ematen. ■

CAF ELHUYAR SARIAK 2018

ETA SORTU UHIN HEDAKORRAK

EGIN JAUTI

Maiatzaren 16an emango dira CAF-ELHUYAR sariak. Ekitaldia Donostiako Tabakaleran izango da, Kutxa Kultur gunean, 18:00etan. GONBIDATUTA ZAUDE!

ANTOLATZAILAK: CAF elhuyar

BABESLEAK: neiker

LAGUNTZAILAK: kutxa kultur

Hauspoari eraginez

Bost urte bete ditu Euskoak eta dagoeneko gutxi falta zaio Europako lehen tokiko moneta izateko. Euskal Moneta Euskal Herri kontinentalean arrakasta ikaragarria izaten ari den ekimena dugu eta pozgarria iruditzen zait prozesu horrek izan duen behetik goranzko norabidea. Gainera, alternatibak eraiki eta abian jartzeko bidean, urrats oso garrantzitsua izan da: jendartetik abiatuta beronen zerbitzura prestatzen den tresna erabilgarri bat. Pentsatu globalki eta ekin lokalki leloari denboraren dimentsioa gehitzeko badago: orain. Etorkizuneko plan estrategikoen martxa itxaron gabe, orainean bertan ekiteko erreminta bat ere badelako.

Euskal monetaren helburuak anitzak dira oso eta horretan datza hein handi batean bere arrakasta: birtokirratzea, euskara, trantsizio energetikoa, ekologikoa, gertuko merkataritza... Helburuak bezain anitzak dira baita ere euskoaren erabiltzaile eta defendatzaileak. Errealitate horretatik abiatzen da Dante Edme Sanjurjo, elkartearen zuzendari orokorra euskoaren emaitzetako bat goraipatzerako orduan: jendarteko sektore oso desberdinen artean zubiak eraikitze gaitasuna du monetak.

Honekin batera, euskoaren beste ekarpen handi bat nabarmendu nahi du: tokiko monetaren bitartez, ekonomia gizartera gerturatu egiten dela. Hau da, ekonomia berriz gizartearen txertatzen laguntzen duela: moneta, merkatua eta ekonomia bera jendartearen zerbitzura ekarriz.

Euskal Herriko zenbait udaletan, Hendaian edo Uztaritzen esate baterako, tokian tokiko administrazioek ekimen honekin bat egin dute euskoaren kide eginez. Are gehiago, beraien aldetik ere urratsak eman dituzte, hala nola igerilekuek eta mediatekek euskotan ordaintzeko aukera eman



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA

@aialuski

Euskoa izaten ari den ibilbidea ikustea zirrargarria da. Maila teorikoan defendatzen duguna, praktikan badabilela ikusteak bizipoza ematen du. Baionako Udalak euskoarekin akordio bat sinatu zuen 2017ko udan. Hitzarmen horren bitartez, udalerrriak zenbait gastu eusko bidez ordaintzeko aukera ireki zuen

ere. Udalerrien arteko aliantza honek, zalantzarik gabe, balioz bete egiten du Euskal Moneta.

Euskoa izaten ari den ibilbidea ikustea zirrargarria da. Maila teorikoan defendatzen duguna, praktikan badabilela ikusteak bizipoza ematen du. Baionako Udalak euskoarekin akordio bat sinatu zuen 2017ko udan. Hitzarmen horren bitartez, udalerrriak zenbait gastu eusko bidez ordaintzeko aukera eman zuen: hautetsien ordain-sariak, elkarteentzako diru-laguntzak edota zenbait faktura. Baionako Udalak hartutako erabaki hau ongi baloratu beharra dago. Are gehiago, Jean-René Etchegaray auzapeza Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria ere badela kontuan hartzen badugu.

Baionako Udalak urrats hori eman baldin badu, Euskal Monetari dagokion balioa antzematen diotelako izan da. Edo bestela, euskoak indartu nahi dituen baloreekin bat egiten dutelako.

Zorionez edo zoritxarrez, ez dakit, Frantziako Estatua ere ohartu da euskoaren botereaz: Hexagonoko zaindarien Baionako Udala eta euskoaren arteko hitzarmena Paueko epaitegitara eraman dute. Ez da harritzekoa: batzuentzat garaipena dena, beste batzuentzat deserosotasun iturria da. Zorionez (orain bai) euskoa garaile irten da, Paueko juleak baieztatu berri duelako akordioaren legezkotasuna. Oraingoz, badago zer ospatua baina Paueko prefetak kasua Bodeleko epaitegitara eraman nahi du.

Bitartean, euskoak egunetik egunerara bere bidea egiten jarraitzen duen heinean, asko ari gara ikusi eta ikasten. Moneta burujabetzaren aldeko urrats batek posible egiten du burujabetzaren beste hainbat dimentsiotan ere aurrera egitea. Noiz gertatzen da hori? Moneta oztopo baino hauspo bilakatzen denean. ■

Injustiziaren basatzen

Justizia sistema bereziak bereziki asmatuak izan ohi dira injustiziaren prozedurak ahalbideatzeko (eta gaitz erdi, horrek erran nahi izanen balu justizia sistema ohikoak justuak direla!). Egun hauetan Auzitegi Nazional deiturikoak eta Goreneko Auzitegiak, pil-pilean ditugun espartzuzko testuradun bi bakailao horiek, injustiziaren prozeduren muina azaleratu dute, Altsasuko gazte eta Kataluniako subiranistak hizpide.

Prozedura berezien muina ez ezik, prozedurek beraiek haien bultzatzaile eta sostengatzaileei sortzen dizkieten arazoak ere nabarmendu dituzte, era berezian nabarmendu ere. Ez baita lan erraza parranda gau bateko alkoholaren demasa bat terrorismo delitu bihurtzea. Buru- eta luma-finezia aparta behar dute epaileek horrelako operazioa egiteko, direnak direla ibili nahi dituzten algoritmoak. Hain zuzen ere, justizia prozedura bereziek menosten dituzten fineziak, horretarako baitaude. Hortaz, profesionaltasun aldetik, estimu gutxitan izan behar du epaile batek bere burua enpeinu horretan tematzeko: justizia egile baino, borrero izan nahiago baitu. Bada autodegradazioa! Agian, burutuko du bere borrero funtzioa, baina ez du lortuko azkenean epaile gisa tente



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

@Bixentesi

Berez, defentsa berme gutxien duen auzitegian jokatu nahi izan zukeenaren legez mugitzen ari da Pablo Larena, injustizia egiteko propio sorturiko epaitegi batek jokatu lukeen maneran

eramateko domina duinik: kenduko diote ohorezko medaila goiz ala berandu (betiere berandu) bere epaiketa epaituko duen bertze epaitegi batek.

Altsasuko gazteena, auzitegi berezi bati inola ere ez dagokion kasua da, Kataluniakoa ez bezala: bertzelako be-

rezitasunik duen Goreneko Auzitegiari dagokiona da hau, itxura osoz, nahiz eta saiatu, saiatu egin den injustiziak egiteko propio paratu zen auzitegiaren eskuetan jartzen. Ezin izan dute lortu, forupekoak direnez auzipeturiko batzuk. Halere, berez defentsa berme gutxien duen auzitegian jokatu nahi izan zukeenaren legez mugitzen ari da Pablo Larena, injustizia egiteko propio sorturiko epaitegi batek jokatu lukeen maneran. Eta hor sartu da bete-betea lokatzezko zoruetan. Kontraerran lohi-tuetan, kontu politiko huts bat justizia egileen eskuetan jarri izanak ezinbertzez ekartzen dituen kontraerranetan.

Izan ere, gauzak dauden moduan, epailearen helburu eta grina berberak dituzten politikariek, zeinen eskuetan zegoen oso-osorik diru publikoaren kudeaketa, ezin dute aitortu diru horren bidegabeko erabilera, euren burua salatuko ez badute. Konponbide zaila dute Pablo Larena eta Cristobal Montororen arteko kontraerranek.

Azken buruan, auzi politikoak justizia auzitzat kostatzen ahala kostatzen jo nahiak maila goreneko auzi politiko bihurtzen du injustizia grina tematia, zigor berberak ezarri nahi dituztenen arteko auzi politiko instituzional.

Euren basatzen itotzen ari dira. ■

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



BOOKTEGI
Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

Gizarte aktibatua



Mikel Irizar
EUSKALEGILE
@mirizarintxaus

Duela aste batzuk, pentsiodunak gai izan ziren hiriburuetakok kaleak betetzeko. Aldarri argia eta zentzuzkoa landu dute, eta horren inguruan ari dira biltzen, gero eta gehiago, gero eta trinkoago. 70eko hamarkadan demokraziaren alde mugitzera ohitu ziren belaunaldiak berriro mugitzen hasi dira, eta ez dira geratuko.

Egun gutxi lehenago, emakumeen txanda izan zen. Indar erakustaldi handia egin zuten; militantzaren esparrua gaindituta, emakumeen aldarria gizarte osora zabaltzeko seinale. Eraitza ikusita, klase politikoa lotsagorritu egin zen hasieran eta moretuz doa ondoren. Hau ere ez da berehalakoan apalduko.

Bi dinamika indartsu hauek, gainera, elkarri begira jarri dira, interes komunak bila. Eta interes komunak ez dira aurkitzen zailak. Oraindik pentsiodun ez dena izango da noizbait, eta belaunaldi arteko elkartasuna azalpen handirik gabe ulertzen da. Bestalde, pentsiodunen artean emakumezkoak dira kaltetuenak, gehien irabazteko dutenak. Aliantza naturala da, eta indar oso handia har lezake.

Gehiago ere bai. Gure Esku Dago dinamika orain arte metatutako gizarte atxikimendua erakunde publikoetara bideratzekotan da, hauetan eragiteko. Ekainerako giza-kate erraldoia iragarri du, Donostian abiatu eta Bilbon zehar Gasteizko Legebiltzarreraino; bertan herri ordezkariak

emango zaie Herritarron Ituna izeneko arrazoi bilduma erabakitzeko eskubidearen alde. Ehun mila lagunetik gora lotuko dira berrehun kilometroko tartea betetzeko.

Eta udagoien hondarretan gauzatuko da Euskaraldiaren lehen olatua. Euskaraldia da hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamika, hizkuntza berdintasunera bidean. Gizartea astindu nahi du euskal hiztunaren egoera hobetzeko helburuarekin, erdal hiztunari ulertzeko eskatuta. Eta orain artekoak argi erakusten du hau ere birala dela, zabalkunde azkarra eta handia ari dela izaten.

Dinamika horiek guztiek badute oinarri komun bat: denek bilatzen dute gizartearen aktibazioa eskubide oinarritzkoen alde, jabeakuntza prozesuak dira erabakimena eta eragin-indarra gizarteari itzultzeko norabidean. Oso posible da hiritar bera bi dinamiketan, hirutan edo lauretan jardutea, guztiz koherentea litzateke hori.

Bada, etorriko balitz halako bateratasun bat mugimendu guztion artean, gizarte tsunami bat gertatuko litzateke hurrengo hilabeteotan, gure egitura instituzional eta politikoak astindu ditzakeena. Katalunian gertatu denaren antzera, han independentziaren alde eta hemen eduki anitzagoekin. Han eta hemen, gizarte aktibatua eskubide oinarritzko eta unibertsalen alde.

Eta 2019a hauteskunde urtea da... ■

Titulitisa



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Inguruan opositore mordoa daukat, oposizioetan (ez oposaketetan, mesedez!) izena emanda dutenak. Eurretako asko ikastarorik ikastaro dabilta, dezimatxo batzuk emango dien titulutxoaren bila, curriculum gizontze aldera. Eta horrela dihardute azterketa etengabeen: IT txartelak, ontzi-patroi titulua, lehen laguntzetako ikastaroa, jaki-manipulatzailer karneta... Helburua beti papera, jakitea ez hainbeste.

Hainbat ere, gehiengoak ez esateagatik, horregatik datoz euskaltegiara, hizkuntza eskakizun bila; azterketa egitera, alegia. Euskara beharrean, tituluen hizki-zenbaki zopa baino ez dute nahi.

Badakit, oraintxe "nire eskuetatik" pasatu diren ikasleetakok batzuek profila lortuko dutena, baina euskaraz ez dutena inoiz jardungo. Tristeia eta penagarria. Jakin, agian bai; egin, inoiz ez.

Hori da gure panorama: agiriak baino ez du inporta. Papera edukitzea, alajaina. Gai garen aitortutakoa erabiltzeko, bost axola, beraz.

Mataza bereko haria da Madrilgo presidentaren ustezko masterrarena. Ziurtagiri hutsen balio hanpatua nabarmentzeaz gain, erakutsi du eraikitako sistema azaluts eta hankamotza dela. Jakintzak ez, tituluak du pisua. Horregatik, iruzurra baino kezagarriagoa da *titulitis* zikina! ■

Emantzipazioaren auzian

Garuna gordetzeko dugun male-tan *fragile* pegatina itsatsita hasi beharko genuke gure bidaia.

Baina ez da hori izaten etxetik irtetea nagusitzen den sentipena. Bestela, ez genuke egingo. Urte onak izan ziren, oso onak. Baina lagungarria izan da zailak ere izan zirela ulertzea: ez baita garai erraza. Psikearentzat bereziki hauskorak dira 25era arteko urteak.

Erabakiak hartzeko eta nia-ren garapenerako garrantzitsua den burmuinaren atala heldutasunera iritsi baino askoz ere lehenago aukeratutako ikasketak bukatuta, edo artean bukatu gabe: lehen lanak, lehen etxebizitza propioa alokairuan, non eta norekin... Hori dena itxura onean egin ahal izateko, beldurra, egin gabe uzten dugun ohe azpian ondo gordeta behar dugu.

EAEko gazteei emantzipaziorako pausu hori emateko laguntza ekonomikoa emango die Eusko Jaurlaritzak. Egia ote, gazte askok ez duela *amatxo*-ren etxea utzi nahi? Harena baino, sarritan bi gurasoena izaten den etxetik irteteko motibaziorik handiena larrutan lasai egiteko leku bat izatea omen da. Ez zait lotsatzeko moduko motiboa iruditzen. Baina Euskal Herrian horretarako aukera gutxi omen dagoenez, ez omen du merezi alokairua ordaindu, etxearen garbiketaz arduratu eta gaizki jaten ibiltzeak. Epe erdira, zenbait topikoren egiazkotasuna frogatzeko datuak eman ditzake programa horrek. Oraingoz, piztu du interesa: 2019ra arte indarrean sartuko ez den neurriak arreta zerbitzuak kolapsatu ditu.

23 eta 35 urtekoen artean, muga baten eta bestearen arteko zirrikitan kabitzen zaretenon artean, ahal duenak har dezala laguntza. Baina ez hartu serioegi hiru urtetan lagundu ondoren *alla kuida* esaten dizuen hori. Hegoekin bizi ondoren, kalkuluak egin beharko dituzue, eta ziurrenez ez dira



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

izango merezi izan duten orgasmoe-nak. Kalkuluak gaizki ateraz gero, akaso gurasoen etxera bueltatzea egokituko zaizue.

Nire hasierako ibilaldietan alde ekonomikoa ez zen zaila izan. Alokairu merkeak zituen hiri batean lur hartu bainuen, hiria garapen bidean zegoen eta ni ere bai. Garai haietako hanka sar-tzeek salbatu naute, sendabidean jarri ninduten. Izena aldatu ez duen arren, beste hiri batean bizi naiz orain. Alo-kairuen prezioei jarraituz auzoz aldatu nintzenean, ez nintzen konturatu zer ari nintzen galtzen. Auzoa galdu nuen, au-zoan nituen harremanak galdu nituen.

Berlin zaharrari, 6,20 Euro/m² dioen hilarria jarri diote martxoan. Horren er-dia ordaintzen genuen guk! Prezio haie-tako etxebizitzak desagertu direla argi dago. Desagertu ez direnak barruan bizi zirenak dira. Hilarria jarri eta gutxi-ra irudi bat utzi du hiriburu heterodoxo honek: 13.000 pertsona kalean, euritan, alokatzeko eskaintzen den pisua ikuste-ko itxaroten ari den ilara luze-luzea.

Manifestari haiei begira jarrita, han-txe ikusi nituen denak: bistaz galdutako auzokideak, bidaideak, haien maitale izandakoak. Berpiztuta. Edo inoiz hil gabe. Melankonia sentitu nuen, eta ez nuen nahi. Irudi horrek esperantza izpi baten ikur ia errebeldea ere bazuela esan nion neure buruari.

Alokairuetarako laguntzak baziren orduan eta badira gaur ere. Baina ez dute balio laguntzek markatzen duten prezioetik beharako etxeak topatzea ezi-nezko bihurtu denean, laguntza behar dutenek etxebizitza baten kontratua lortzeko pasatu behar den *casting*-ean aukerarik ez dutenean, aste beterako datozenekin finko bizi direnekin baino negozio tentagarriagoa egin daitekeen. Laguntzak behar dira. Baina ez dute balio merkatua txoratzea galaraz-teko. ■



Udako
Topaketak
2018

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 26an eta 27an LEIOAN

Uztailaren 2an, 3an eta 4an DONOSTIAN

hh
hik hasi

IKASTAROAK: **Pedagogia Sistemikoa** - Mugak jarri autoestimua zainduz - **Mindfullyoga** - Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia - **Psikoterapia eta gorputza hezkuntzan** - **Suizidioaren prebentzioa** - Antzerkia hezkuntzan - **Matematika eskuetara LHn** - **Gure eskolak mila kolore dituelako** - Wilhelm von Humboldt - **Ikasleak erakarri euskaraz egin nahi izan dezaten** - **Komunikazio Ez Bortitzan sakontze maila** - Dislexia - **Hezkuntza eredu parekidea** - Barne sormena lantzeko estrategiak - **Mindfulness (Arreta osoa)** - Irakurketa eta idazketa konstruktibista - **Jolasa eta jolas terapeutikoa eskolan** - **Garapen pertsonala irakasleentzat** - Heriotzaren psikopedagogia - **Materia eta energia gaiak LHn** - **Adimen Emozionala hezkuntzan** - **ARTikertuz, Ikus-Artean oinarritutako ikasketa** - **Yoga eta kontzentrazio teknikak hezkuntzan**

Informazioa eta izena ematea **www.hikhasi.eus** helbidean



The image is a full-page background photograph. On the left, a large, textured tree trunk is visible. The rest of the image shows a lush green field with a simple wooden bench in the foreground. In the background, there are more trees and a fence line. The overall scene is peaceful and natural.

Landareak

Aurrean ditugun arren ez ditugu ikusten

Edonora begiratuta ere, beti aurkituko duzu landareren bat zure inguruan. Euskal Herrian 3.500 espezie ditugu; horietatik 225 mehatxupean. Belaunaldiz belaunaldi, ordea, landareekiko interesa eta ezagutza murrizten joan da gure gizartean, eta egun, kosta egiten zaigu inguruan ditugun landare arruntenei izena jartzea. 2001ean eginiko ikerketan, Wandersee eta Schussler botanikariek gauza bera ondorioztatu zuten Amerikako Estatu Batuetan; eta izena jarri zioten gertatzen ari zenari: *plant blindness*, landareekiko itsutasuna. Euskal Herrian egindako ikerketak agerian jarri du ikasle eta irakasleen ezagutza maila.

Iñaki Sanz-Azkue
@sanz_azkue

Ainhoa Meñika

Aritz Ruiz-González
@ARGLepahoria

Joserra Díez
@diez_joserra

Arritokieta Ortuzar

Hezkuntza formalean, Curriculumak dioenaren arabera, ikasleek bere ingurunearen oinarritzko ezagutza eta kontaktua edukitzea ezinbestekoa da; hori da eskolan irakatsi beharrekoa. Ordea, eduki horiek barneratzea zaila suertatzen da faunarekiko eta florarekiko ezagutzarik eta interesik ez badugu. Hainbat ikerketen arabera, irakasleek animaliekiko dute zaletasun handiagoa, eta eskolan animalien munduari askoz denbora gehiago eskaintzen zaio landareei baino. Horrek landareekiko interesik eza ekar dezake txikitatik. Baina, Euskal Herrian, zein da irakasleek eta ikasleek landareekiko duten interesa? Ezagutzen al dituzte inguruko landare arruntenak?

Galdera horiei erantzuna emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlariek osaturiko lantaldeak bi ikerketa jarri ditu martxan. Egungo egoeraren diagnosia burutu dute, hori egitea ezinbestekoa baita irakasleentzako eta ikasleentzako material didaktiko egokia sortu aurretik.

Azterketa horretarako, 2016-2017 ikasturtean Euskal Herriko 26 ikastetxetan 12-14 urte arteko 1.040 ikasleri galdetegia egin zitzaion. Ikasleei naturarekiko duten interesari buruzko hainbat galdera egiteaz gain, 10 animalia eta landare izen jartzeko eskatu zitzaion, euren ezagutza-maila neurtzeko. Animaliei zegozkien datuak 2017-05-21eko ARGIAN eman genituen ezagutzera, *Lehoia eta otsoa aurrez aurre. Ezagutzen al dituzte umeei bertako animalia arruntenak?* erreportajea. Aldiz, landareenak ez dira gaur arte idatziz argitaratu. Aurretan bertan Zientziaren eta Teknologia-aren Hezkuntzari buruzko nazioarteko bi kongresutan aurkeztu dira.

Ume bakoitzak batez beste bertako 5 landare-izen dakizki

Ikerketa horretan, ikasleek animaliekiko eta landareekiko, biekiko, interesa handia zutela adierazi zuten: %51k interes handia edo oso handia, eta oso gutxi ziren (%9) interes txikia edo oso txikia zutela ziotenak. Baina animaliak eta landareak alderatzeko orduan, landareekiko itsutasunaren zantzuak azaldu ziren ikasleen erantzunetan. Hau izan zen egin zitzaion galdera: Zeintzuk pizten dute interes gehien zugean, animaliek ala landareek?



Irudian sagarrondoa, ikasleek gehien izendaturiko zuhaitzetako bat. Ordea, horrek ez du arbolaren ezagutza adierazten, fruitua da identifikatzen dutena. Arbola parean jarritz gero, agian ez lirateke identifikatzeko gai izango.

NATURALISTA

» Ikerketarako, 10 landare-izen jartzeko eskatu zitzaion, eta galdetegia egin zuten 1.040 ikasleek, batez beste, 5,4 landare-izen idatzi zituzten

» Ikasleen artean, herri txikienetakoei izendatu zituzten landare gehien (8,2 landare 10etik). Gainera, bertako landare gehien euren izendatu zituzten (6,8 landare 10etik)

Ikasleen %76ak soilik animaliekiko hautua egin zuen eta %16ak animaliak eta landareak, biak zituen gustuko. Soilik landareak aukeratu zituztenak %3a baino ez ziren izan. Beste herrialde askotan ikusi den bezala, gurean ere umeei animaliekiko interes handiagoa dute. Wandersee eta Schusslerrek Amerikako Estatu Batuetan 2001ean ondorioztatu zuten moduan, landareekiko interes eza oso handia da, eta horrek, landareei arretarik ez jartzea dakar. Ezaugarri horiek, aldi berean, landareen ezagutza-maila baxua izatea eragiten dute.

Euskal Herriko ikasleek buruan dituzten landare-izenak jakin nahian, 10 landare-izen jartzeko eskatu zitzaion, eta galdetegia egin zuten 1.040ek, batez beste, 5,4 landare-izen idatzi zituzten. Emaita horrek bat egiten du Suitzan egindako ikerketen emaitzekin. Landareak izendatzeko zailtasunak oso handiak dira.

Ikasleek erantzundako landare-zerrendak informazio gehiago ere eman zuten: ikasleek batez beste aipaturiko 5,4 landareetatik 3,8 bertako landareak

GERNIKA ETA BILBOKO ESKOLEN ALDERAKETA


ZUHAITZ ESPEZIE IZENDATUENAK

	 GERNIKA (IKASLEAK)	 BILBO (IKASLEAK)	 BILBO (IRAKASLEAK)
Zerrendaturiko espezie kopurua	29	20	33
10 zuhaitz espezie izendatu dituzte	%42	%6	%67
Espezie izendatuak	Haritza (%91) Sagarrondoa (%70) Hurritza (%95)	Sagarrondoa (%84) Pinua (%60) Urkia (%81)	Pinua (%80) Haritza eta laranjondoa (%43) Palmondoa (%76)


ZUHAITZ ESPEZIE IDENTIFIKATUENAK




Pinua



Eukalipto



Haritza



ziren. Herrialde baltikoetan egindako ikerketan ere, ume gehienek bertako espezie gehiago ezagutzen dituzte kanpoak baino, baina Ingalaterran eta Alemanian ere ikusi den moduan, inguruko oso espezie gutxi izendatzeko kapazak dira; ezagutza baxua da.

Ikasleen artean, herri txikienetakoak (5.000 biztanle baino gutxiago) ziren landare gehien izendatu zituztenak (8,2 landare 10etik). Beraiek izan ziren, baita ere, bertako landare gehien izendatu zituztenak (6,8 landare 10etik). Herri

» Bertako arbola arruntenen identifikazio-mailak oso baxuak izan dira. Ikasleen %90ak baino gehiagok ez ditu identifikatu lizarra, haltza, pagoa, urkia eta artea

txikienetan egunerokoan naturarekin kontaktua edukitzeko aukera handiagoa izanda, ezaugarri horrek ziurrenik izango du eragina bertako espezie-kopuru gehien izendatzeko orduan.

Landareen artean, ikasleek gehien izendatu zituztenak jangarriak eta basatiak izan ziren, apaintzeko edo baso usiaketarako erabiltzen direnen aurretik, nahiz eta gure lurraldearen laurdena basoz estalita egon. Espezie zuhaizkarak, bestalde, belarkarak edo zuhaixkak baino sarriago izan ziren izendatuak.

Eskerrak Gernikako arbolari...

Buruturiko ikerketetan, landa eremuko eta hirietako pertsonen ezagutza-mailen arteko aldea sakonago aztertu zen. Horretarako, Urdaibaiko Biosferaren erdian dagoen Gernika eta inguruko herrietako 45 ikasle (Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak, 11-12 urtekoak) arbolei buruzko galdetegi berezi bat bete zuten. Horiez gain, Bilbo hiriko eskola bateko 53 ikasle (LHko 6. mailakoak) eta 18 irakasle (LHko 6. mailakoak; adina: 40 urte, batez beste) izan ziren galdetegia bete zutenak.

Emaitzak ez du duda askorik sortzen: landareekiko itsutasuna iritsi da Euskal Herrira.

Galdetegiaren atal batean 10 arbola espezieen izenak idazteko eskatu zitzaizkien. Gernikako ikasleen %42ak baino ez zituen eskaturiko 10 espezieak idatzi, eta denen artean, guztira, 29 arbola izendatu zituzten. Argentinan egindako ikerketa batek ere balio antzekoak eman zituen, eta ikasleen erdia baino gutxiago (%32) izan zen 10 landare izendatzeko gai. Gernikako eskolan, izendatuenen artean izan ziren haritza (%91ak izendatua), sagarrondo (%84) eta pinua (%80). "Gernikako arbola" ezaguna haritza izanda, ez da harritzekoa bertako umeek espezie hori izendatu izana gehien. Kellert-ek ondorioztatu zuen moduan, horrek aditzera ematen du animalia eta landareen eza-gutzan sinbologiak ere baduela indarra. Izan ere, Gernikako arbolarik gabe, zenbat ume gernikarrek ezagutuko zuten haritza?

Bilboko ikasleen kasuan, oster, 20 izan ziren guztira zerrendaturiko espezieak, eta ikasleen %6ak baino ez zituen 10 zuhaitz izendatu. Aipatuenen artean,

» Landareen artean, ikasleek gehien izendatu zituztenak jangarriak eta basatiak izan ziren, apaintzeko edo baso ustiaketarako erabiltzen direnen aurretik, nahiz eta gure lurraldearen laurdena basoz estalita egon

» Ondo identifikaturiko zuhaitzen artean pinua izan zen ikasleek gehien ezagutu zutena, %91 eta %64ko emaitzekin Gernikan eta Bilbon, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da baita ere, Gernikako ikasleen %87ak identifikatu zuela eukalipto (Bilbokoen %14ak)

batez ere fruitu-arbolak agertzen dira, baina kasu honetan, Gernikan ez bezala, haritza izendatuenen hirugarren tokian azaltzen da: sagarrondo (%70eko izendapenarekin), pinua (%60), eta haritza eta laranjondo (%43) dira errepikatuenak.

Ikasleen artean, fruitu-arbolak oso ezagunak dira. Patrick eta Tunncliffe emaitzen arabera, ordea, fruitu-arbolak izendatzeak ez du arbolaren ezagutza adierazten, baizik fruitua identifikatzen dutela. Arbola parean jarri gero, agian ez lirateke identifikatzeko gai izango.

Zuhaitz-espezie gehien izendatu zituztenak irakasleak izan ziren; guztira 33. Maisu eta maistren artean %67ak 10 espezieak zerrendatu zituen, baina kasu honetan lehendabiziko hiruetan agertzen ziren espezieak ikasleekiko ezberdinak ziren: hurritza (%95ak izendatua), urkia (%81) eta palmondo (%76).

Pinua eta eukalipto, haritzaren aurretik

Galdetegiaren bigarren zatian Bizkaiko 9 zuhaitz arruntenen irudiak erakutsiz, horiek identifikatzeko eskatu zitzaizkien: ametza (*Quercus pyrenaica*), haritza (*Quercus robur*), artea (*Quercus rotundifolia*), eukalipto (*Eucalyptus globulus*), haltza (*Alnus glutinosa*), intsignis pinua (*Pinus radiata*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), pagoa (*Fagus sylvatica*) eta urkia (*Betula celtiberica*).

Jarritako 9 zuhaitzen irudietatik, batez beste 2 izan ziren irakasleek zein ikasleek ondo identifikatu zituztenak. Alderatzeko orduan, ez zen ezberdintasun nabarmenik ikusi irakasleen eta ikasleen ezagutza-mailan. Ikasleen artean, ordea, Gernikakoek zuhaitz

Produktu EKOLOGIKOEN banatzaileak

"Cal Valls"



... Bisitatu gure webgunea: www.biotza.es

BIOTZA

banaketak.s1.

gehiago identifikatu zituzten (2,3), Bilbokoekin alderatuz (0,8). Bien kasuan mailak baxuak badira ere, animalien ezagutzari buruz egin zuten ikerketak eta Finlandian egindakoek erakutsi duten bezala, litekeena da bizilekuaren tamainak bertako biztanleek naturarekin duten harremanean eragina izatea. Gernikako ikasleetako asko inguruko herri txikietakoak dira eta natura gertuago dute egunerokoan. Ikerketa horien arabera, landa-eremuko umeek animalia eta landareak identifikatzeko gaitasun handiagoa dute.

Nabarmentzekoa da, bestalde, ondo identifikaturiko zuhaitzen artean pinua izatea ikasleek gehien ezagutu zutena, %91 eta %64ko emaitzekin Gernikan eta Bilbon, hurrenez hurren. Azpimarraztekoa da baita ere, Gernikako ikasleen %87ak identifikatu zuela eukalipto (Bilboko %14ak). Irakasleen artean ere pinua izan zen gehien identifikatu zuten zuhaitza; %100ak ezagutu zuten.

Emaitza hauek egun Bizkaiko paisaia denaren isla baino ez dira. Izan ere, 600 metrotik beherako lurren laurdena pinuak estaltzen du, eta itsasertzeko lurretan (Gernika dagoen ingurunean, esaterako), azken urteetan eukalipto landaketek nabarmen egin dute gora. Horiek izanik egunerokoan ikusten dituzten espezieak, Patrick eta Tunnicliffe 2011n ondorioztatu zuten bezala, ez da harritzekoa landare horiek izatea gehien ezagutzen dituztenak. Horrez gain, pinuen azikulen (hostoen) forma bereizgarriak, arbola honen identifikazioa asko errazten du.

Arreta deitzen du pinua, eukalipto eta haritza izan direla identifikatu dituztenak. Hiru hauetako bakarra

BI BELAUNALDITAN URRITU ZAIGUN EZAGUTZA

Europa mailan egindako hainbat ikerketek diote azken hamarkadetan naturari loturiko ezagutzaren beherakada handia izan dela. Zantzu guztien arabera, gurean ere landare-ezagutza murriztu egin da. Baina ikerketarik gabe, nola ziurtatu?

Burbunak eta etsayak proiektuan 2012-2013 urteetan Hernaniko 60-90 urte arteko 10 pertsonari egindako landare ezagutzari buruzko elkarrizketek, pertsona horien ezagutza-maila altua erakutsi zuten. Etxetik jasotako ezagutza zuten, eta batez beste inguruko 68 landare belarkara (zuhaitzak eta zuhaixkak kontuan izan gabe) izendatu zituzten. Elkarrizketaturikoen lagina txikia izan bazen ere, belaunaldi zaharrenek oraindik ere duten ezagutzari buruzko erreferentzia ona izan daiteke.



"Burbunak eta etsayak" DVDa erraz eskuratzeko aukera dugu www.argia.eus-eko Azokan.

da bertakoa, eta beste biak kanpotik ekarriak. Era berean, bertako arbola arruntenen identifikazio-mailak oso baxuak izan dira. Ikasleen %90ak baino gehiagok ez ditu identifikatu lizarra, haltza, pagoa, urkia eta artea. Haritzaren kasuan, Gernikako %53a baino ez zen landarea identifikatzeko gai izan, nahiz eta izendatzeko orduan, %91ak izendatu zuten. Bilboko ikasleen artean, bakarrak identifikatu zuten haritza, eta irakasleen herenak baino ez. Azken hauen kasuan, pagoa ezagutu zuten irakasle bakarra egon zen. Ametza eta haltza ezagutu zuten irakaslerik ez zen egon.

Irakasleen formazioaren eta material egokiaren beharra

Buruturiko ikerketek agerian jartzen dute Euskal Herrian ere badela landareekiko itsutasuna. Landare ezagutza eta interesa horren baxuak izateak, badauzka bere ondorioak. Lindemann-Matthies-ek 2011n, edota Gaston eta Spicer-ek 2004an ondorioztatu zuten moduan, espezieen ezagutza, naturarekiko interesarekin batera, funtsezko faktorea da ingurumenaren, biodibertsitatearen zein garapen jasangarriaren alorreko kontuetan ulermena sustatzeko. Hezkuntza curriculumean agertzen diren helburuak era egokian bete nahi badira, ezinbestekoa da interesan eta ezagutzean arreta jartzea eskolak emateko orduan.

Bioaniztasunari eta ekosistemen ekologiari buruzko oinarritzeko ezagutza izateak eta hurbileko ingurumenean oinarrituriko material didaktikoa edukitzeak asko lagunduko lituzke irakasleak, bai edukiak transmititzeko, bai eskolak diseinatzeko ere. ■

BI BARATZE LIBRE LEZOKO BARATZE PARKEAN

**Baratzea gustuko baduzu
lursail bat eskuratzeko aukera duzu**

Informazioa eta izen-ematea
Lezoko udaletxean
(943 524 650)



Ramón Font

USTEC hezkuntza sindikatu katalaneko bozeramailea

“Argitalpenak banatu ditugu irakasleei jakinarazteko ikasgela politikaz hitz egin daitekeela”

Gorrito-delituagatik inputatuta dauden irakasleek, doktrinamendu salaketek, 155ak Kataluniako eskoletan utzi dituen ondorioek, nazio identitatean hezkuntzak duen rolaz... mintzatu gara Ramón Font irakasle eta USTEC hezkuntza sindikatu katalaneko bozeramailearekin.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: FONTEK UTZIAK

USTEC-eko zure kide Alex Juanmartik hitzaldi bana emango du Iruñean eta Bilbon, maiatzaren 4an eta 5ean, LAB Irakaskuntzak bere 30. urteurrenean antolatutako ekitaldien baitan. Hezkuntzak Kataluniako prozesuan duen rola izango du mintzagai. Paper garrantzitsua jokatu du?

2010etik hona independentismoak izan duen gorakada handian ez, eskolak ez duelako hain epe motzean hain modu indartsuan eragiteko ahalmenik, hezkuntzak epe luzera begiratzen du: gaur jartzen duzun hazia etorkizunean ernatuko da. Baina eraikuntza nazionalen funtsezkoa izan da eskola, jakina, nortasun nazionalaren berreskurapenean: Frankismotik heredatu genituen katalana debekatzen zuten eta espiritu espainiarrean formatzen zuten Eskola Nazionalak, eta horren aurrean, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera bultzada handia eman zitzaion katalana oinarri zuen eskola ereduari, bereziki kanpotik etorritako familiek eskatuta, euren seme-alabek bertakoen eskubide berak izatea nahi zutelako. Konstituzioarekiko, 78ko Erregimenarekiko haustura egin zuen eskolak, beste arlo batzuetan

ez bezala, eta egitura demokratiko eta asanblearioen bideari ekin zion. Gaur arte. Egun, denok hitz egiten dugu katalana, denon hizkuntza da, eta horretan eskolak zerikusi oso handia dauka. Nazio batzuk erlijioan oinarrituta eraikitzen diren bezala (Irlanda kasu), hemen hizkuntzak batzen gaitu, katalanak; horregatik –izan– du hain rol inportantea hezkuntzak nazio eraikuntzan.

Prozesuan bertan, halere, izan du paper garrantzitsurik eskola katalanak. Urriaren 1ean adibidez gako izan ziren ikastetxeak, hauteslekuak jartzeko garaian.

Bai, aurretik prestaturiko osagai guztiak labean sartzea izan zen. Hauteslekuen bi heren ikastetxeak izan ziren eta hezkuntza komunitateak bereziki inplikatu ziren horietan: irakasleak, gurasoak... aritu ziren parte-hartze politikorako, manifestaziorako eta autodeterminaziorako eskubidea babesten eta ahalbidetzen, poliziaren erasoan gainetik. Ez bakarrik hezkuntza komunitatea, urriaren 1ak denok harritu gintuela uste dut, gizarte osoa zenbateraino engaiatu zen. Historiara pasako da.

Ikasle mugimendua ere bizi-bizi dago.

Ikasleen mobilizazioa nik gogoratzen dudana handiena izan da. 80.000 ikasle Bartzelonako kaleetan manifestatzen, hori ez da inoiz gertatu. Eta hori daude ikasleen sindikatuek antolatutako grebak, unibertsitateetan lotara geratu diren ikasleak... Berdin irakasleak ere; azaroaren 8ko greba orokorrak, esaterako, batez ere hezkuntzan izan zuen erantzuna. Oso greba konplikatu izan zen, legala zen edo ez auzitan zegoelako, eta ilegal izateak ondorio oso arriskuatsuak izan ditzake; bada, hala ere, eskola publikoko 30.000 irakasle eta kontzertatuetako beste 6.000k egin zuten greba, ikasleek gain. Hezkuntza kasik paralizatu egin zen.

Kataluniako ikasgeletan doktrinatzeko dela aitzakia hartuta, irakasleen aurkako kanpaina aukiatsu du Espainiako Gobernuak, salaketa judizialak tarteko.

Bi irakasle adibidez (hasieran zortzi ziren) gorrito-delituagatik salatu ditu fiskaltzak, urriaren 1a ikasgela komentatzeagatik. Beste ikastetxe batean, 12-13 irakasle daude inputatuta, isilune minu-



» “Eraikuntza nazionalen funtsezkoa izan da eskola, nortasun nazionalaren berreskurapenean”

» “Ikasleen mobilizazioa gogoratzen dudana handiena izan da. Berdin irakasleak; azaroaren 8ko greba orokorra oso konplikatu izan zen, eta batez ere hezkuntzan izan zuen erantzuna”

» “Arazoak saihestu aldera, autozentsurara jo dute irakasle batzuek. Iritzia ematea debekatu nahi dute, eta doktrinatzeari hain juxtu kontrakoa da: botereak agintzen dizuna esatea”

tu bat egiteagatik. Beste hainbat herritan berdin, gorroto-delitu leporatuta eskola publiko nahiz kontzertatueta irakasleak daude jomugan, oro har urriaren 1az hitz egiteagatik, poliziak izan zuen jokabideaz... Urriaren 1ari buruz ikasgelan debatea antolatu nahi zuen irakasle bat ere badago tartean. Guardia Zibilaren kuartelak dauden herrietako ikastetxeak dira; ez dugu uste kasualitatea denik. Horrez gain, hainbat ikastetxetako zuzendaritzak ere sedizio delituagatik ikeretzen ari dira, erreferenduma ahalbidetu zutela egotzita. Nik neuk bi salaketa ditut, Hablamos Español elkarteak jarrita: gorroto-delitu batetik, gaztelaniaz ez dudala irakatsiko esateagatik, eta sedizioa bestetik, erreferendumarekin sindikatuak izandako konpromisoagatik. Zain gaude, ea zer gertatuko den epaiketara hauekin guztiekin...

Ikuspegi hezitzailetik, nola ulertu daiteke ikasgelan debekatzea politikaz hitz egitea eta eztabaidatzea? Are gehiago, hori delitu bilakatzea.

Ni Hiritartasunerako Heziketako irakasle izan naiz denbora askoan, eta politika gai bat jarri eta horretaz eztabaidatzen jartzen nituen ikasleak, publikoan hitz egiten ikasteko, argudiatzen ikasteko, ideia eta iritzi ezberdinak errespetuz elkartrukatzeko... Baina iritzia ematea ere debekatu nahi dute. Eta doktrinatzeari hain juxtu kontrakoa da: botereak agintzen dizuna esatea. Hori da beraiek nahi dutena! Ciudadanos eta PPrene helburua denean Goi-Ikuskaritzaren bidez ikasgelan esaten duguna kontrolatzea, nolabait esaten ari direna da historia bakarrik modu jakin batean irakatsi daitekeela, beraiek nahi duten moduan. Ciudadanoseko kide batek kritikatu zuen Gironako

irakasle gehienak ERCkoak direla. Eta hala balitz? Zer nahi duzu, Ciudadanosekoak izan daitezela, ala? Niri berdin zait zein partidukoak diren, nik nahi dudana da euren lana ongi egin dezatela.

Katedra Askatasuna ulertzen hasi gara orain, zergatik 70eko hamarkadan otu zitzairen Espainiako Konstituzioan Katedra Askatasuna sartzea, polizia fakultate frankistetara joaten zelako, irakasleek zer zioten kontrolatzeraz. Puntu horretan gaude berriz...

Sorgin-ehiza erabatekoa da: gorroto-delituagatik edo doktrinamenduagatik irakasleak salatzeraz animatu dituzte gurasoak, Espainiako Barne Ministeriotik.

Bai, lehen aipaturiko irakasle salatuen kasuan ez bezala, hau ez doa bide judizialez, ikuskaritzaren bidetik baizik, eta masiboagoa izan da Hezkuntzaren



Goi-Ikuskaritzara iritsitako salaketa kopurua: ehundik gora salaketa anonimo, doktrinamendua leporatuz. Testu-inguruan jarrita, milioi eta erdi ikaslelik ehundik gora salaketa jasotzea gutxi da, batez ere aintzat hartuta salaketen zerbitzura jarri den makineria politiko-mediatico guztia; doktrinamendua kritikatzeko gurasoen ordez, babesten eta animatzen gaituzten gurasoak ditugu batik bat inguruan, baina gizakiak gara eta fokua doktrinamenduan hainbeste jartzeak eragiten dizu, jakina.

Nola?

Arazoak saiheste aldera, autozentsurara jo dute irakasle batzuek, hala onartu digute, badaezpada zenbait gai ez dituztela gelan ateratzen. Eta argitalpenak banatu ditugu irakasleei jakinarazteko ikasgelan politikaz hitz egin daitekeela, eta hitz egitea beharrezkoa dela, ezin baitituzu esaterako Gizarte Zientziak irakatsi, politikaz hitz egin gabe, ez du zentzurik! Curriculumean bertan hala jasotzen da. Ikastetxeetara goaz, jendea lasaitzera eta babesa ematera, tartean babes juridikoa.

Nola eragin du 155ak Kataluniako hezkuntzan?

Bi porrot handi izan ditu 155ak: bate-tik, doktrinamendua egotzita aipatzen ari garen Hezkuntzaren Goi-Ikuskaritzaren eta kontrola, eta bestetik murgiltze eredua. Murgiltze ereduak kontsentsu

» “Bi porrot handi izan ditu 155ak: Hezkuntzaren Goi-Ikuskaritzaren eta murgiltze ereduaren aurkako eraso. Baina atzeko atetik hainbat neurri inposatzea lortu dute”

oso zabala du Katalunian eta gure hezkuntza ereduaren zutabe da. Espainiako Gobernuak familiek laukitxoak betetzea nahi zuen, erabaki zezaten ea gaztelaniaz ala katalanez eskolatu nahi zituzten seme-alabak, baina Konstituzio Auzitegiak berak bota du atzera hori, esanez hezkuntza-aniztasuna erkidegoen eskumena dela. Espainiaren batasunaren eta Espainiako Gobernuaren alde ari diren testuinguru politiko honetan auzitegiak berak onartu du hau harago doala, independentismoaren aldekoak asko gaitik gaitzen dituen kontsentsua duelako murgiltzen ereduak.

Horiek izan dira gai entzutetsuenak, baina atzeko atetik beste hainbat neurri inposatzea lortu du Espainiako Gobernuak, 155aren bidez. Hezkuntza kontseilaria kendu eta euren jartzeari esker, PPK nahi duen oposaketa eredu gaitentzea lortu du Espainiako Lurral-

dekako Batzarrean, ituna egin du kontzertatuekin (tartean sexuagatik segregatzen duten ikastetxeekin, Kataluniako Parlamentuak kontrakoa ebatzia zuen arren), eta hezkuntzarako aurreikusita zegoen aurrekontua atzeratu dute.

Hezkuntza bezalako zutabe hain funtsezkoan eskua sartzea ez da kasualitatea...

Ez dago epe luzera herrialde baten etorkizuna gehiago determinatuko duen ezer. Ikusten dute katalan hezkuntza funtsezko elementua dela identitate nazionalaren eraikuntzan, eta hori akabatu nahi dute. Eta hori lotuta, gure historia, gure erakundeak...

Zein da eraiki nahi duzuen eskola?

Guretzat lau puntu nagusi daude. Bate-tik, esan bezala, katalana. Eta hemen denok katalana hitz egin behar dugula, horretan ados gaude guztiok, ezker eta eskuin. TV3n, hauteskunde aurreko debategi batean, espero ez zuen galdera egin nion Inés Arramidas: “Katalana jakitea baldintza izango da irakasleentzat?”. Ciudadanoseko edozeinek ezetz esango lizuke Espainian, baina hemen ez zen horretara ausartu, eta luzamendutan korapilatu zen, erantzuna saihestuz. Horrez gain, guretzat eskolak izan behar du doakoa (haur hezkuntzatik unibertsitate-raino), publikoa bai titularitatean bai gestioan, eta demokratikoa (irakasle eta zuzendaritzen aukeraketan, familien parte-hartzean...). ■

Gaixotasun zeliakoa

ZER JAN ETA ZER EZ, HORI DA KONTUA

Hesteetako arazoa da zeliakia. Glutena digeritzeko zailtasunak dituenak pairatzen du. Gaixotasun kronikoa da eta sendagai bakarria betierekoa izango den elikadura zaintzea da.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak



“30 urterekin osasuna kaskartzen hasi zitzaidan. Ia egunero tripako mina nuen eta beherakoa. Pisua galdu eta galdu hasi nintzen. 38 urterekin 36 kilo pisatzen nituen eta oraindik ez nekien zeliakoa nintzela”. Hala kontatu digu Edurne Egilegorrek, duela hogeitak zeliakoa denak.

Gaixotasunak oinarri genetikoak dauka eta genea daramatenek bizitzako edozein momentutan gara dezakete edo inoiz ere ez. Europan 100 pertsonatik batek du, baina %75 diagnostikatu gabe dago. Ohikoak diren odol analisiak ez dira beti nahikoa izaten. Markagailu immunologiko positibo zehatz batzuek zeliakiaren susmoa piz dezakete, baina negatiboek ez dute gaixotasuna saihesten. Prozesua, ordea, hemen eteten dute askotan. Sinesgarria den proba bakarria hesteetako biopsia egitea litzateke.

“Askok kostatu zitzaizkien gaixotasuna eta, hortaz, tratamendua atzematea. Hasiar, beste gaitz batzuekin alderatzen zituzten sintomak: beherakoa, tripako mina, sabela puztea, goragalea, nekea, tristura, gosea eta pisua galtzea...”. Egilegorren kasuan, elikadura eta klima aldaketari leporatu zioten, garai hartan atzerrira joatea izan zelakoan bere ezinegonaren arrazoia.

Euskal Herrira 38 urterekin itzuli zen. Medikua renera joan eta dieta garbia besterik ez zioten gomendatu. Bi-

tartean pisua galtzen jarraitzen zuen. Iriologo batengana iritsi zen eta hark ireki zizkion begiak. “Hesteetako arazo bat daukazu, zeliakoa zarela esango nuke”, esan zion. “Zer? Zeliakoa?”, erantzun zion Egilegorrek. Hitz hori entzuten zuen lehenengo aldia zen. Han eta hemen galdetzen hasi zen. “Klinikara ere joan nintzen azterketa bat egitera. Minimoaren minimoan nengoela eta bi odol transfusio egiteko gomendatu zidaten. Ezetz esan nien. Ordurako jada ezagutza nuen eta dieta bidez sendatuko nintzela zin egin nion neure buruari”, adierazi du. “Oso galduta” sentitu zela dio, baina dieta kontrolatuta izan eta gauza guztiak kontuan hartuta hamasei kilo gizen-tzea lortu zuen urtebetean.

Lupa eskuan, betiere

Dieta da, beraz, zeliakoak kontuan hartu behar duena. Irina da debekatutako osagai nagusia, baina Egilegorrek beste hainbat faktore ere aintzat hartu behar direla gaineratu du: “Kontserbagarriak, koloratzaileak, lodigarriak... Batzuetan, etxetik kanpo kafea hartzeak ere ezinegon sortzen digu, malta izan dezakeelakoan. Kalitate baxuko kafea erosten dutenek, malta gehitzen diote, eta hori ez dago inon idatzia. Patata tortilarekin ere gertatu zait. Arrautza gutxiago erabili eta patata igo dadin legamia bota

izan diote eta guk ezin dugu hartu”. Halakoetan etxera joan behar izaten dute azkar batean. Gorputza indarririk gabe eta txikituta sentitzen duela kontatu digu. Denbora behar du berrirori ere ongi sentitzeko. Horrek guztiak mesfidantza sortzen diola gehitu du.

Aurrerapausuak eman diren galdetu diogu: “Fabrika eta jatetxeek glutenik gabeko produktu gehiago ekoizten dituzte. Baina, ez dakit benetan interesa arazoa bera den edo eskaintza handitzeko eta produktu berriak merkaturatzeko aitzakia. Produktuak oso garestiak baitira. Betiko irinak euro baten bueltako prezioa dauka eta zeliakoenak sei eurokoa. Halaber, olio eta gas gehiago xahutzen da, bi su erabiltzen baitira otordu bererako. Beste tratamendurik ez duen gaixotasun bat izateko gehiago egin daitekeela pentsatzen dut”.

Etxekoan zein ingurukoan errespetua eta gaixotasunarekiko ezagutza handitu beharra ere azpimarratu du. Etxean bertan Egilegorrentzako produktuek soilik betetzen dute apal bat, eta horrek segurtasuna bermatzen du: “Irina eroriz gero lasai egon naiteke, badakidalako zeliakoentzako irina dela apal horretan erori dena. Begiratu gabe edozer hartu eta jan dezakedala dakit, beste guztiok egiten duzuen bezala. Garrantzitsua da ulertzea gaixotasuna dela eta ez bizitzeko modu bat, aukera edo gutizi bat”. ■

Inaciu Galán y González, Iniciativa Pol Asturianu

“ASTURIERARI DAGOKIONEZ, HIZKUNTZA KONTZIENTZIA GORA ARI DA”

Apirilaren 21ean milaka asturiarrek eskatu zuten Oviedon ofizialtasuna asturierarentzat. Gizarte babes handia lortu du azken urteetan, baita babes politikoa ere. Asturiasko PSOEk inoiz ez bezala ofizialtasunaren alde egin du alderdiko azken kongresuan. Erabaki horrek estatutua erreformatzeko bidea ireki dezake. Inaciu Galán Iniciativa Pol Asturianu elkarteko presidentea da eta asturieraren aurrerapausoak kontatu dizkigu.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: IVAN G. FERNÁNDEZ

Milaka asturiar elkartu zineten manifestazioan. Zein balorazio egin duzue?

Orain arteko garrantzitsuenetako bat izan da, eta transbertsalena ere bai. 1976tik lehenengo aldia da PSOEek esplizituki parte hartzen duela. Beti egon dira karguak eta ordezkariak asturieraren alde, baina oraingoan, alderdiaren urriko kongresuan erakutsi zuten asturieraren ofizialtasuna haien helburuetako bat izango zela. PSOE manifestaziora lehen aldiz etortzea historikoa da, zeren berak gobernatu du ia beti Asturiasen garai autonomikoan. Bestetik, oso jendetsua izan da, momentu giltzarrian. Giltzarria da gehiengo nahikoa dagoelako estatutuaren erreforma-prozesua abiatzeko eta ofizialtasuna eskatzeko.

Legegintzaldi hau bukatu baino lehen zerbait lor daiteke?

Azken hauteskundeetan 45 diputatutik 17 ziren ofizialtasunaren aldekoak, Podemosekoak, IUkoak eta Foro Asturiasekoak (Francisco Álvarez-Cascosen alderdia). Militante sozialistek behin baino gehiagotan erakutsi dute ofizialtasunaren aldeko jarrera, baina alderdiko nagusiek botere handia zuten eta

inoiz ez zuen aurrera egiten proposamenak, ezta Asturiasko presidente sozialistaren bat alde egonda ere. Oraingo kongresuan lortu da.

Beraz, PSOEk bidea erraztuko du.

Orain bestelako arazo bat dago. Uste dut *susanista* [Susana Díaz, Andaluziako Juntako presidentea] ez den diputaturik ez dagoela sozialisten talde parlamentarioan. Javier Fernández Asturiasko presidentea aukeratutakoak dira. Fernándezek irmo esan du ofizialtasunaren aurka dagoela. Esan dezagun beraz, orain alderdia alde dagoela, baina diputatu taldea ez. Beraz, legegintzaldi honetan nekez egingo da zerbait.

Hurrengo hauteskundeetan duzue esperantza?

Orain lau alderdi daude ofizialtasunaren alde: Podemos, PSOE, Foro Asturias eta IU. Lauren artean 27 bat diputatu lor ditzakete 2019ko maiatzeko hauteskundeetan eta estatutuaren erreforma-prozesua abiatu. Jakina, ofizialtasun ereduaz, epeez eta abar eztabaidatu beharko dute. Asturiasko parlamentutik Madrilera joango da eskaera eta erantzuna,

na, ikusita beste adibide batzuk, hainbat urtetara irits daiteke.

Alderdien artean zenbat eta kontsentzu handiagoa PPren jarrera are muturrekoagoa da, Asturiasko PPko presidentea barne. Mercedes Fernández presidentea 1998an alde zegoen, eta orain zeharo aurka. Orduan PSOE ofizialtasunaren aurka zegoen. Dena dela, guk uste dugu buruzagien kontua dela, ez dugu uste PPko militantzia aurka dagoenik, ezta udaletako zinegotziak ere.

Gaur egun asturierak duen estatusak zein neurritan babesten ditu hiztunak?

Nolabait esatearren, Nafarroako eremu mistoaren tankerakoa da egoera. Herriarrek administrazioan asturieraz egin dezakete, ahoz eta idatziz, baina administrazioa ez dago derrigorritasunarekin erantzutera.

Hezkuntza sisteman, maila guztietan egotea babesten du, Haur Hezkuntzatik unibertsitatetara. Lehen Hezkuntzan asturiera edo asturiar kultura ikasgaiaren artean aukeratu behar duzu, bigarren hori gaztelaniar ematen da; hizkuntza eta kultura hain irmo banatu ahalko balira bezala. Derrigorrezko Bigarren Hez-



"Podremos ser felices nun siendo, pero escoyemos ser". Haurrak bere mezua zabaldu nahi izan zuen apirilaren 21eko manifestazioan, alegia, zoriontsu izan daitezkeela izan gabe, baina izatea erabaki dutela. Xuan Bello, asturieraz ari den idazle garrantzitsuenetarikoren esaldia da.

esan nahi du hizkuntza kontzientziak gora egin duela. Nabarmen gora egin duen beste datua idazteko gaitasuna da. Askok asturiar gehiagok esan du oraingoan idazteko gai dela. Ikastetxeak eta helduentzako ikastaroak eraginkorrak izan diren seinale.

Orain gutxiago hitz egiten da eta era berean gazteek hizkuntza kontzientzia handiagoa dute?

Oraingo belaunaldiek, gutxi-asko, normaltasunez bizi dute asturiera. Gutxiago erabiltzen dute, baina aurrejuzuak desagertu dira. Nire aiton-amonek errepresio zuzena bizi izan zuten Frankismoan asturiera erabiltzeagatik. Estigma hori daukate. Erantzuteko diskurtsorik ez zegoen eraiakita. Nire amonari esaten diot parlamentuan asturieraz egiten duten diputatuak daudela eta izutu egiten da, "nola erabiliko du bada maila horretako jendeak etxeko sukaldean erabiltzekoa den hizkuntza?". Hala esaten du.

Beste kontu bat da gazteena. Gaur egun, 2018an, sinetsi ezin ditudan gauzak gertatzen dira. Institutuko irakaslea naiz eta asturiera ikasgaia ematen dut. Ikasle gehienek egunerokoan asturieraz hitz egiten dute. Bada, ikastetxean irakasle batek baino gehiagok esaten diete asturieraz ez hitz egiteko, gaizki hitz egitea dela. Lotsa ematen dit esateak, baina hala da. Ikasleen autoestimua goratzen saiatzen zara, alfabetatzen, eta gero halako egoerak bizi behar dituzte. Ordea, gaur egun informazio asko daukate, eta lehen ez bezala, orain ez dira isiltzen, eta erantzun egiten dute. Badakite esku-bideak dituztela eta badakite gauzak ez direla irakasle horiek kontatu bezala. ■

kuntzako deskalabrua galanta da. Asturiera aukerazko ikasgaia da, eta besteak beste frantsesarekin lehiatzen da. Zentzugabea da bertako hizkuntza eta beste hizkuntza bat aurrez aurre jartzea.

Ofizialtasuna lortuz gero zein eredu jarraitu eztabaidatu beharko da. Hainbat ikasgai asturieraz ematea, Euskadiko sistema jarraitzea... Eztabaida izango da, baina behintzat ikasgai bat asturiera izango da eta ikasketak bukatutakoan ikasleak gai izango dira asturieraz hitz egiteko eta idazteko.

Bukatzen ari den ikasturtean esperientzia pilotua egin da ikastetxeetan.

Lehen Hezkuntzan hamar ikastetxetan asturiera hizkuntza ardatz izan da, hau da, astean hainbat orduz zenbait ikasgai

asturieraz irakatsi dizkiete. Iraultza galanta izan da. Umeek nota hobeak atera dituzte, izan ere, natur zientziak haien hizkuntzan ikasi dituzte eta zuhaitzei eta animaliei haien hizkuntzan deitu ahal izan diete. Ikasturte berrian beste hamar ikastetxe hasiko dira. PPK plana epaitegiatar eraman du.

2017an Asturiasko III. Inkesta Soziolinguistikoa kaleratu zen. Zer azpimarratuko zen nuke emaitzetatik?

Aurreko emaitzekin alderatuz hizkuntzarekiko pertzepzioak hobera egin du. Adibidez, ofizialtasunaren alde dago %53, aurka %18. Orain jende gehiagok dio asturiera hiztuna dela, eta harri-garria da zeren guk antzematen dugu erabilera jaitxi egin dela. Beraz, horrek

BABESLEA: HERNANIKO UDALA



AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK 5. ALDIZ ABIAN

Hernaniarrok erabakiko dugu
2019ko aurrekontuaren **500.000 euro** zertan inbertitu

erabaki.hernani.eus



DESPOPULATZEA NAFARROAN

BASAMORTUA MENDITIK HARAGO?

Pirinioetan eta beste zenbait lurralde menditsuetan ezezik, landa guneko herri handi askotan ere populazioak behera egin du azken hamar urteetan Nafarroan, lurraldearen metropolizatzea norainokoa den agerian utziz.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA


Zeresana ematen ari da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak duela gutxi aurkeztu duen lurraldearen biztanleriari buruzko txostena. Orain arteko hainbat joera baieztatzeaz gain –herri txiki asko jendez husten ari dela–, ikusi gabeko beste hainbat datu kezkarri ekarri ditu: Nafarroako landa gunean herritarrei zerbitzuak eskaintzeko garrantzitsuak diren hainbat herri historikotan ere (Lizarra, Zangotza, Tafalla...) behera egin du erroldak 2007tik hona.

Txostena *Concejo* aldizkarian argitaratu du federazioak eta bere presidente Pablo Azcona Lodosako alkateak (independentea) Nafarroako Parlamentuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioaren Batzordean aurkeztu zuen apirilaren 17an.

Nafarroako biztanleriak hazten jarraitu du azken hamarkadan (+37.000), nahiz eta askoz modu apalagoan –krisiaren aurretik 100.000 lagun iritsi zi-

ren lurraldera lan egitera urte gutxian–. Arazoa metropolitze prozesua da. Azkonak azaldu zuenez, hamar urteotan Iruñerriak eta bere “gerrikoan” dauden udalerriek jarraitu dute hazkunde handia izaten –biztanleriaren %51 barnebiltzetik %54ra igaro dira– eta aldiz, Nafarroako eremu “landatarrenak” despopulatze bidean dira: “Herri oso txikiez ari gara eta desagertzeko arriskuan daude”, gaineratu zuen.

Bereziki Pirinioetan, Zangotzako eskualdean eta Estellerriko mendebaldean gertatzen ari da odoluste handiena ehunekotan: badira udalerriak euren biztanleen %30 galdu dutenak. Jurramendiko bazter batean dagoen Piedramillera herria da denen buru, herritarren %38k ospa egin du azken urteetan eta 60 biztanletik 37ra igaro da. Ranking horretan badira agian ezagunagoak zaizkigunak: Erronkari (-%25), Auritz (-%21), Uxue (-%21)...



Gorritz beherakada izan duten eskualdeak, berdez mantendu direnak eta urdinez igo direnak.

ITURRIA: NUKF

Eskualdeetako hiriburu historikoen gainbehera

Eskualde menditsu horietan despopulaztearen arazoarekin aspaldi daude zailduta eta euren aldarrikapenak aurrera eramateko antolatzen ari dira; Pirinioetako belaunaldi berriak, esaterako, bizi-modua ateratzeko alternatibak lantzen hasi dira (ARGIAren 2.565. zenbakian kontatu genizun).

Baina *basamortua* menditik harago ari da hedatzen, azken txostenari behatzen badiogu. Nafarroa Erdialdeko eremu zabaletan behera egin du biztanle kopuruak eta hondoratze demografikoa eskualdeetako hiriburueta iritsi da jadanik. Tafallak nozitu du jaitsiera handiena: 477 lagun gutxiago bizi da bertan. Lizarra, Zangotza, Mendabia, Irunberri... Herri koskor horietan guztietan erroldak behera egin du: “Orduan eta biztanle gutxiago, zerbitzu gutxiago, bukatzen ez den soka da”, esan

zuen udal eta kontzejuen federazioko presidenteak.

Fenomeno hori Erriberan ere nabaritu dute. Herritarrak gero eta gehiago Tuterako Erriberan ari dira kontzentratzen –Nafarroako bigarren hiri handienak 35.000 biztanletik gora du jadanik–, eta Falces, Valtierra, Cascante, Fitero, Cortes eta tamaina erdiko herri askok pisu demografikoa galdu du.

Zenbait kasutan arrazoia hirigintza garapen eta politiketan aurki daiteke. Barañainek, adibidez, 1.700 biztanle galdu ditu, “udalerrri guztia erabat urbanizaturik, hazkunderako aukerak agortu ditu”, dio txostenak. Beste zenbaitetan sailhestezina da desindustrializazioaren mamuan pentsatzea: Sakanan dozenaka

lantegi garrantzitsu itxi dituzte urteotan –langabezia hirukoiztu egin zen krisiarekin– eta horren ondorio izan daiteke Altsasu, Olazti, Irurtzun eta antzeko herrietako populazio gainbehera 2007tik hona.

Orekatu vs zentralizatu

Baina egiturazko arrazoiak ere badaude, Gaindegiak Euskal Herri osorako datuak erkatu ditu Espainia eta Frantziako estatuetako iturri ofizialak kontuan edukita eta gorabehera handiak atzeman ditu baita ere Lapurdiko kostaldean, Zuberoan eta Araban, landa guneen hustearekin zerikusia dutenak.

Imanol Esnaola euskal behategiko koordinatzaileak *Berria*-n azaldua du

aspaldi ezarritako lurralde egituraren ajeak direla horiek –Arabako A-1 autobidearen ardatzak, esaterako, probintzia horretako baliabideak bereganatu ditu– eta lurralde antolamendurako irizpideak ezartzeko egungo eztabaiek asko dutela hortik: orekatu edo zentralizatu.

1990etik zehaztu gabe dagoen Nafarroako tokiko administrazioaren “mapa” onartze bidean da, lege aurreproiektuari azken ukituak eman ostean. Hamaika eskualde eta hiru azpi-eskualde aurreikusten ditu eta egungo mankomunitate eta partzuergoak desagertuko lirateke gehienez, baina eskualde horiek hurbiltasun printzipio subsidiarioari eutsiko liokete zerbitzuak eskaintzeko.

Pablo Azconak legebiltzarreko agerraldian eskatu zuen herri guztietan gutxieneko azpiegiturak egotea: “Nafar guztiek oinarritzko zerbitzuak eta bizi kalitatearen gutxieneko estandarrak izateko duten eskubideaz ari gara”. Nariadura demografikoa eta hondamendi ekonomiko nahiz kulturala eteteko balioko ote du Nafarroako mapa berriak? ■



ELKARTASUNA PIRINIOETAN

Artzibarko Gorraitz herrian etxe batek su hartu zuen joan den otsailaren 27an. Suteak eraikina goitik behera kiskali zuen eta garrek inguruko bi auto ere harrapatu zituzten. Antza, su baxuko tximinian piztu zen sutea eta Auritzeko suhiltzaileak iristerako ezin izan zuten ezer egin.

Gertaera hori albiste hutsa litzateke, gaur batengatik ez balitz: etxe hori Goirratzen bizi den familia bakarrarena zen. Etxeko bizilaguna kanpoan zen sutea piztu zenean eta inork ezin izan zuen larrialdiaren abisurik eman, herrian ez zegoelako inor.

Pirinioetako herrietan bizi duten hustearen dramaren isla izan liteke kasu hau, baina baita halako parajeetan bizi eta lan egiten dutenen arteko elkartasun erakusle ere. Hondamendia gertatu eta berehala antolatu dira ibarreko herritarrak, Gorraitzen etxerik gabe geratutako bikotea eta haren bi seme-alabak diruz lagundu eta haienzako arropa biltzeko guneak jarri dituzte besteak beste –Artzibarko Udalak kanpaina babestu du–. Apirilaren 21ean, bestalde, kontzertu solidarioa antolatu zuten Agoitzen.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

EDWARD CHU

“Gizon zuriek indiar emakumeen aurka egindako sexu delituak zigorgabe geratzen dira”

Edward Chu (Kaliforniako Santa Rosa, AEB, 1974) mediku eta antropologoak navajo indiarrek artatzen ditu Tuba City (Arizona) hiriko ospitalean, *Regional Health Care Corporation*-en bitartekaritza. Gizarte begirada eta ikuspegi klinikoa uztartuz ehuntzen du bere lana.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Igone Mariezkurrena

Connecticut, Boston eta Baltimore artean hazi eta ikasi zenuen. Baina ia 3.500 kilometrorra, AEBetako beste muturrean, Arizonako basamortu erdian lan egitea erabaki duzu, Navajo nazioko kokagune handienean. Zergatik?

AEBetako osasun sistema, herritarrentzat ez ezik, medikuntza soziala egin nahi dugun profesionalontzat ere izugarri frustragarria da. Amerindiarren erreserba batean aritzeak, ordea, baldintza sozio-ekonomikoek hiritarren osasunean duten inpaktua ulertzeko gakoak ematen dizkigu egunero. Komunitate-osasunaren alde eragiteko leku proposa da.

Zergatik diozu medikuentzat ere sistema atsekabegarria dela?

Imajinatu urgentzietan aritzen zarela, diabetes krisi betean iritsi den gaixoa egonkortzea lortu eta alta emanda etxera bidaltzen duzula. Badakizu egun gutxira ospitalean izango duzula berriz ere, ez duelako dirurik insulina tratamendua ordaintzeko, ez daukalako asegururik edo ordaintzen duen ase-

guruak ez duelako horrelakorik barne hartzen.

AEBetako gainerako herritarrekin alderatuta, zer nolako osasunerako sarbidea dute jatorrizko herriek?

Antzeko egoera sozioekonomikoetan bizi diren estatubatuarrekin alderatuta, pribilegiatuak dira; erreserba barruan bizi eta jatorrizko tribu bateko kide direla frogatzerik badute behintzat, zerbitzu medikoa ordaintzetik salbuetsita daudelako. Pribilegioa erlatiboa da noski, Gobernu Federalak jatorrizko indiar hauetako bakoitzarentzat estimatutako aurrekontua ez delako iristen aseguru pribatua duen hiritar estatubatuar arrunt batek horretan inbertitzen duen kopuruaren erdira ere eta, beraz, zerbitzu oso oinarritzkoa jasotzen dutelako. Baina, era berean, eta kontuan hartuta Tuba Cityn adibidez langabezia-tasa %50ekoa dela, salbuespen horri esker ez balitz, populazioaren gehiengoak ez luke inongo estaldurarik izango. Orain egoera askoz kaskarragoan daude hiritartasuna ez duten etorkinak.

Zergatik?

2015ean Obamak derrigorrezko bilakatu zuen hiritar orok osasun aseguru edukitzea, eta honek barne hartu beharreko gutxieneko zerbitzuak ezarri zituen erreforma harekin. Gutxieneko horiek ordaintzerik ez zuten hiritarrei zuzenduriko diru-laguntza sistema oso bat ere jarri zuen martxan. Kanpaina mediatikoak ez zuen kontatu, baina, diru-laguntza horietarako dirua ordura arte GKEetara eta karitate klinika publikoeta bideratzen zela eta, ondorioz, haien onuradun ziren hiritartasunik gabeko etorkinak babesgabe geratu direla.

Ba al dago bestelako mugarik navajoei eta gainontzeko jatorrizko tribuei zuzenean erasaten diena?

Obamaren erreformari lotutako diru-laguntza sistema berriak ehunka mila paziente sartu zituen osasun sistemara bat-batean. Aldiz, gutxienez zortzi urte beharko ditugu sendagile eta erizain berriak formatu eta hauek sistemara gehitzeko. Ondorioz, muga ekonomikoa gainditzea lortu duten gaixo askok ga-



norazko arreta jaso gabe jarraitzen dute, hain justu, profesionalak falta direlako.

Baina honek zergatik eragiten die indiarrei gainontzeko hiritarrei baino nabarmenago?

Tira, oro har, hiri nagusietatik urruneko nekazalguneetan bizi diren guztiei eragiten die, leku hauetan are larriagoa delako giza-baliabideen eskasia, baita anbulantzia eta bestelako baliabide materialena ere. Baina indiarrek beste inor baino isolatuago bizi dira, Gobernu Federalak jatorrizko tribuei aitortu zizkien eremuak, erreserbak alegia, kasu gehienetan ez daudelako euren berezko lurretan, baizik eta Gobernuarentzat interes handirik ez zuten eremu pobre, antzu eta garatugabeetan. Irisgarritasun eskaseko esparruetara desplazatu zituzten, hiriguneetatik urrun daude, eta osasun sistematik ere bai hortaz.

Zeintzuk dira Tuba City erreserban maitzen artatzen dituzuen patologiaak eta zer lotura dute navajoen bizimoduarekin?
Gaitz larri gehien-gehienak langabeziak

eragindako alkoholismoarekin, sedentismoarekin eta gizentasunarekin lotutakoak dira: diabetesa, gibleko patologiaak eta kardiobaskularrak nagusiki. Batez ere 20-40 urte bitarteko belaualdiei eragiten die, zaharragoek dieta tradizionalari eusten diotelako oraindik eta, oro har, bizitza aktiboagoa egiten dutelako, ur bila edota egur bila joatearen ardurari ere eutsi diotelako. Bestalde, indarkeria maila izugarri altua da erreserban, kasik familia guztiek galdu dute kideren bat, eta erailketa horiek ezagunen artean gertatzen dira gainera, bereziki lagun, ahizpa-anaia edo lehen-gusu-lehengusinen artean, baita bikotekideen artean ere, bi norabideetan. Elkarrekin edateko geratzen dira, mozkortu eta borrokan amaitzen dute.

Sexu indarkeria ere ohikoa al da?

Bai. Hamabost bat urte dituztelarik neskatxak gauez ateratzen hastearekin batera, bortxaketen biktima izaten hasten dira. Erasotzaileak, maiz, erreserba kanpoko gizon zuriak izaten dira. Navajo Gobernuak onartutako legeak navajoen-

gan bakarrik dira aplikagarriak eta, aldi berean, zigor-kode federalak ezin ditu zigortu Navajo Gobernuaren eskumenekoa den eremuan gertatutako delituak. Hortaz, gizon zuriek indiar erreserbetan eta indiar emakumeen aurka egindako sexu delituak linbo legal batean geratzen dira, zigorgabe.

AEBetan nahiko zabaldua den uste batek dio alkoholak eragin azkarragoa eta handiagoa duela indiarrengan, eta arrazoi genetiko berberarengatik menpekotasunerako joera handiagoa dutela.

Uste oso zabaldua da, bai. Baina urtetako esperientziak erakutsi dit hau arazo sozio-ekonomikoa dela, ez kulturala, eta antzeko baldintzatan bizi diren estatubatuar zuriek ere jotzen dutela alkohol nahiz drogetara frustrazioaren aurkako baltsamo gisa. Kontua da Gobernuak eremu bereziki gogorretara desplazatu zituela jatorrizko tribuak, kasu askotan basamortu erdira. Tuba Cityn, esate baterako, supermerkatu bat eta *fast food* jatetxe bat besterik ez dago. Orain bi urte zine txiki bat zabaldu zuten, bai-

na umeek eta nerabeek ez dute aisialdirako beste alternatibarik.

Eta zertaz bizi dira?

Tradizionalki nekazaritza eta abeltzaintza izan dira navajoen ekonomia-aren zutabeak. Lurrak Gobernu indiarrenak berarenak dira, eta bera arduratzen da familia bakoitzari sail bat edo beste egokitzeaz. Ur-iturriren bat duten lursailetan bizi direnek ardiak, behiak, zaldiak... hazten dituzte, eta nahiko ongi bizi dira, alkoholismo arazorik gabe. Baina Gobernu indiarren barruan ere ustelkeria itzela da eta, beraz, lurren banaketa faboritismotan eta mesede-truketan oinarritu ohi da. Ikatz meategi bat ere badago, baina honek eskaintzen duen lanpostu kopurua txikiegia da 8.500 biztanletik gorako populazio batentzat, eta horregatik askok armadan ematen dute izena, soldata ez ezik hezkuntza ere jasotzeko.

2014an Gobernu Federalak 554 milioi dolarreko konpentsazio-akordioa sinatu zuen Navajo Gobernuarekin, natura-baliabideen kudeaketa txarragatik. Zer gertatu da diru horrekin?

Gobernuak komunitate indigena bati egin dion inoizko konpentsazio ekonomiko handiena izan zen, historikoa. Eta ustez Navajo Gobernuak kobratua du. Baina ez dirudi herritarrengana iritsi denik. Familia asko zolatu gabeko etxeetan bizi da oraindik, argindarrik eta urik gabe; eta honek, jakina, eragin zuzena du euren higienean, osasunean eta bizi kalitatean. Ez daukate zauriak garbitzeko modurik, adibidez. Edo, esate baterako, gurgildun aulkia edota ibiltzen laguntzeko eskorga behar dutenak nekez mugi daitezke kalean zein etxe barruan. Bestalde, nahiz eta egunerokoan navajoek ez duten ez tabakorik ez beste ezer erretzen, pipa zeremonia berezietarako bakarrik gordetzen dutelako, asmadun ume asko artatzen dugu, eta biriketako



» “Gaitz larri gehien-gehienak langabeziak eragindako alkoholismoarekin, sedentarismoarekin eta gizentasunarekin lotutakoak izaten dira: diabetesa, gibleko patologiak eta kardiobaskularrak nagusiki”

beste zenbait arazo duten helduak ere bai, su-egurra erabiltzen dutelako sukaldean, etxea berotzeko edota zaborra erretzeko.

Trump-ek Standing Rock-eko (Ipar Dakota) lur sakratuen barruan eraiki nahi duen oliobidearen aurka altxatu zen Sioux Nazioa 2016an. Beste tribu batzuk ere batu ziren protestetara eta, proiektua geldiaraztea ez ezik, amerindiarren eta hauen eskubideen auzia aspaldiko partez ikusaraztea lortu zuten.

Bai. Ekimen hark jatorrizko herriak ez ezik, ekologistak, politikariak, gerra beterano zenbait eta Hollywoode-

ko izarren bat ere engaiatzea lortu zuen. Une batez lehen planoan egon ziren, baina azkar erori dira ahanzturan berriro ere. AEBetako hiritar gehien-gehienek ez dakite ezer bertako jatorrizko herrien historiaz, kulturaz, esku-bideez ezta gaur egungo bizi-baldintza kaskarrez ere. Gutxiengo txiki-txikia dira, inork ez ditu bere diskurtso politikoan aipatzen. Kirol talde batzuek indiarren irudia maskota be-

zala erabiltzen dute, eta gainerakoan... kasinoak jabeak direlako ezagutzen dituzte, erreserbetan kasinoak legezekoak direlako.

Nolakoa da medikuntza mendebaldarraren eta navajoen medikuntza tradizionalaren arteko harremana Tuba City erreserban?

Navajoek nahiko indartsu gorde dituzte euren kultura, hizkuntza, usadioak eta baita medikuntza tradizionala ere. Hortaz, erreserbako ospitalean badugu *Hogan* izeneko espazio bat –*Hogan* da navajoen etxe tradizionalen izena–, tribuko xamanek bertan egin ditzaten euren zeremoniak, ingesatuta dagoen edozein gaixok hala eskatuz gero. Batez ere birgizarteratze errituak eta kantak izaten dira, navajoek sinesten dutelako gaixoaren eta bere medioaren arteko deskonexio edo oreka falta baten ondorioa direla gaitzak. Zeremonia horietan, normalean, gaixoaren familia osoak ere parte hartu behar izaten du eta, hortaz, medikuntza mendebaldarrak aintzat hartzen ez duen osagai sozialari garrantzia handia aitortzen zaio. Horregatik, alkoholismoaren ondorioz hautsitako familiak sendatzeko oso baliagarria izaten da, adibidez. Bestalde, ospitaleko teknikariak navajoak dira %100ean, eta erizainen %50 ere bai. Izatez, beste lan-irtenbide garrantzitsu bat da ospitalea eurentzat. Medikuek, aldiz, oso gutxi dira oraindik. ■

"AMETS ERRADIKAL BAT DUT"



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Washington (AEB), 1963ko abuztuaren 28a. Martin Luther Kingek *Amets bat dut* hitzaldi ezaguna bota zuen. Hitzaldi horretan oinarritzen da edo, hobe esanda, hitzaldi horretara mugatzen dute gehienek hark utzitako ondarea. Indarkeriarik ezaren aterkipean babestutako diskurtso moderatua zen, beltzentzako eskubide zibilak eskatzera mugatzen zena –eta ez da gutxi–, “amets amerikarrarekin” bateragarria, Malcolm X edo Pantera Beltzen diskurtso erradikalaren aldean, “onargarriagoa”.

1967ko apirilaren 4an, hil baino urtebete lehenago juxtu, New Yorken hitzaldi bat eman zuen Kingek 3.000 pertsonen aurrean. Vietnamgo gerra gogor kritikatu zuen orduko hartan, gatazkaren amaieraren nondik-norakoak AEB ahalguztidunean oraindik susmatzen ez zirenean. “Gure gizarteak jipoitutako gazte beltzak hartu eta etxetik 8.000 miliatara bidali ditugu, Georgia hegoaldean edo Harlemen ez dituzten eskubideak Asiako hego-ekialdean bermatzeko. Mutil beltzak eta zuriak elkarrekin hiltzen ikusten ditugu, eskola berdinean elkarrekin esertzen uzten ez dien nazio baten izenean. Elkartasun bortitzean ikusten ditugu herrixka txiro bateko etxolak erretzen, baina konturatzen gara ez liratekeela sekula Detroiten



UNDERWOOD ARCHIVES

Mississippiko polizia Martin Luther Kingi bultzaka, Beldurraren Aurkako Martxan, 1966ko ekainean.

etxe-bloke berean biziko. Ezin dut isildu pobreen halako manipulazio basatiaren aurrean”. Arrazismoaz harago, kolore guztietako pobrezia zuen jomuga.

Eta indarkeriarik ezaren ideia zabalatzeko ere baliatu zuen Vietnam: “Ezingo nuke ghettoetako zapalduak erabiltzen duten indarkeriaren aurka egin, lehenago, argi eta garbi, egungo munduko indarkeria hornitzaile nagusiaren aurka egin gabe: nire gobernu bera”. Urtez urte, aurrekontu militarrean gizarte programetan baino diru gehiago xahutzen duen herrialdea “heriotza espiritualera hurbiltzen” ari zela gaineratu zuen. “Makinak, ordenagailuak, eteki-

nak eta jabetza eskubideak pertsonak baino garrantzitsuagoak diren bitartean, ez gara gai izango arrazismoak, materialismoak eta militarismoak osatzen duten hirukote erraldoia gainditzeko”.

Une horretan, prentsak gogor kritikatu eta iraindu zuen King hitz horiengatik. Gero, hitzok isilaraziko zituzten. Eta azken hilabeteen, hil zutenetik 50 urte bete diren aitzakian, hedabide gehienek Martin Luther Kingen ideia antikapitalista garbiak baztertu dituzte berriro ere, ekintzailearen bertsio edulkoratua, publiko guztientzako kontsumigarria, saltzen jarraitzeko. ■



JAPAN TIMES

Zuhaitzak gerraz gogoratzen dira

1944ko azaroaren 12an Tirpitz ontzi alemaniarra bonbardatu eta hondoratu zuten britainiarrek Norvegiako fiordoetan, argazkian ikusten den moduan. Hain zuzen, horrelako erasoak saihesteko asmoz, alemaniarrek laino artifiziala sortzeko kanoiak erabili zituzten ia bi urtez. Laino kimiko horrek azido klorosulfurikoa zeukan, substantzia oso korrosiboa. Orain,

Mainzeko (Alemania) Johannes Gutenberg unibertsitateko ikerlariak ontzia ainguratuta egon zen inguruko zuhaitzen hazkunde-eraztunak aztertu dituzte: 1943 eta 1944 urteetan eraztunak ia desagertu ziren eta zuhaitzek 12 urte behar izan zituzten bere onera etortzeko. Bigarren Mundu Gerraren kalteak ezin susmatuzko tokietan topatzen dira oraindik. ■

Porruaren eulia




Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Porruaren eulia (*Phytomyza gymnostoma*) Euskal Herrira bisitan etorria dela aipatu nizuen aurrekoan. Izurrite berria. Presta gaitezen. Porruaren euliak urtean bi belaunaldi izaten ditu. Lehen negua pupa gisa igaro dutenetatik sortzen da. Euliak, grisak eta 3 milimetrokoak, arrak eta emeak etorriko dira; ibiliko dira eta emeak porruen hosto puntetan jan eta errun, jan eta errun egingo du. Koskadizoak nabarmenak dira, hostoaren hertzean, elkarren segidan. Arrautzak ere hostoetan jarriko ditu. Tokiaren eta eguraldiaren arabera apiril eta ekain artean izango da. Arrautza horietatik harrak sortuko dira, larreak eta 6 milimetro artekoak egingo direnak. Jan eta jan, galeria zuzen-zuzenak irekiko dituzte porruan beherantz. Bero handiak ez ditu gustuko, nonbait, eta neguko hotz handienak bezala uztaile-abuztu aldea lo igarotzen du, pupa gorritza eginda; negukatzea eta udakatzea egiten ditu. Abuztuaren amaieran bigarren euli belaunaldia dator; azarora arte izan daiteke. Irailetik abendura, harrak kalte handiak eragingo ditu porruan. Hotzak hastean, pupa bihurtuko da, galerien beheko barrenean, porruaren buruan. Porrua haztean, ohikoa da hortik lehertzea.

Porruaren eulia bisitan etorri eta geurean gelditzea erabaki baldin badu, zer egin? Tratatu: erasotutako porru guztiak atera, eta, ahal izanez gero, erre; bestela, sakonki lurperatu; euliak bihurtu aurretik, pupak porruan daudela. Gerorako: txandakatu, eraso laxia bada, ez jarri porrua edo bere familiakorik.

Udaberriko hegaldia porru hondaurretan edo hazitegietan izaten da. Baita porru-tipula (*Allium schoenoprasum*), tipula (*Allium cepa*), baratxuri (*Allium sativum*) eta txalota (*Allium cepa* var. *aggregatum*) sailetan edo hartz-baratxuri



(*Allium ursinum*) basatian ere. European batean eta bestean egin diren kontrol saioak alferrik samarrekoak izan dira. Tranpa horietan (ez urdin, ez zuri, ez gorri) harrapatzen dira, baina porruak babestuagatik beste landareetan ugaltzen dira.

Bigarren hegaldia da geurean giltzarria. Hemen porru gehiena udazken-neguan jateko landatzen denez, irail-urriarako euliek arrautzak jar ez ditzaten porrua zaintzea da gakoa. Sistema eraginkorrena sarea da. Hona sarearen baldintzak: Filbio tipokoa esaten zaio; begiak gehienez 0,8 mm izan behar du; ondo-ondo itxi, den tarte mendrenik utzi gabe; uzaiekin jarri, sareak hosto bakar bat ere uki ez dezan; bestela, hantxe errungo dituzte arrautzak. Tranpek ez dute balio euliak noiz dabilztan jakiteko, eta, beraz, abuztuaren amaieran jarri behar da sarea. Honek belarra kentzea bezalako lanak zailtzen ditu eta gaitzak susta ditzake (mildia, gorrina, alternaria...).

Arerioak ere baditu porruaren euliak. Serbian *Halticoptera circulus* deituriko himenoptero ttiki batek parasitatzen

Leire Etxaidek Hondarribian ateratako argazkiak erakusten du Phytomyza gymnostoma eulia Euskal Herrira iritsi dela. European diotenez, izurritearen lehen hiru urteak dira gogorrak. Itxuraz, bertako arerioak egokitu egiten dira, eta euli hau bere dietan sartzen dute.

du. Honelakoen laguntza garrantzitsua da; horretarako, tratamendu kimikoak baztertu eta ingurune bizia eduki behar da baratzean.

Tratamendu ekologikoa ere badago: Spinosad intsektizida naturala. Dosi txikia erabiltzen da, 0,2 l/Ha, baina ikaragarri garestia da, 400 €/l. Euliak errundako arrautzetatik sortutako harrak porruetan kosk eta kosk ari direnean tratatu behar da. Rotenonak eta piretrinak ere erabiltzen dira. Horiek denek kalte egin diezaiekete bere arerioei ere.

European diotenez, izurritearen lehen hiru urteak dira gogorrak. Itxuraz, bertako arerioak egokitu egiten dira, eta euli hau bere dietan sartzen dute. Horrela euliaren erasoak zapuzten dira, neurri batean behinik. Geurea bezala, porruaren euliak eraso berriak dituen lurraldeetarako itxaropentxo bat... ■

Hamar urtez Aralarren magalean permakultura lantzen eta irakasten



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: PERMACULTURA ARALAR

“1986an ezagutu nuen permakultura, 15 urte nituela. Orain 52 dauzkat”. Victor Barahona Ormazabal mintzo da. Garai hartan ez zuen formaziorik, ezta lurrik ere. “Urtetan egon nintzen permakultura ikasten egunen batean nire lurrak lortzean horiek lantzeko asmoz”. 2008an iritsi zen momentua: Azpirotzen (Nafarroa) lursaila erosi eta Permacultura Aralar proiektuari ekin zion. Hamargarren urteurrena beteko dute maiatzean.

Nekazaritzatik harago doan filosofia

“70eko hamarkadan jaio zen permakulturaren kontzeptua, Australian. Guneak, lursailak eta laborantza lekuak natura ahalik eta hobekien imitatuz diseinatzea bilatzen du”, azaldu digu Barahona. Mundu osoan erabili izan diren antzinako nekazaritza teknikak darabiltzate permakulturaren, espezie iraunkorrek ereitea edota labore elkartuak



erabiltzea dira horietako batzuk. Dena den, proiektuaren bultzatzaileak azpimarratu du hasieran nekazaritzari soilik lotutako kontzeptua zena bestelako esparruetara ere zabaldu zela segituan (gizartea, hezkuntza...).

Permakulturaren aldekoa izanik ere, mugimenduari egin ohi zaizkion kritikak ez ditu ezkututzen Barahonak: “Egia da permakulturaren mugimenduan ikusgaitasun handiena dutenak gizon anglosaxoi zuriaren profilekoak direla. Hala ere, eta mugimendua profil horretako pertsonen sortu bazuten ere, urteekin bestelako jendea gehitzen joan zaio, eta aipatzekoak dira Afrikan edota Erdialdeko Amerikan permakulturarekin lotura duten proiektu askotarikoak”.

Bisita gidatuak eta hitzaldiak

Igandeetan bisita gidatuak antolatzen ohi ditu Barahonak bere lurretan: “Lau orduko bisitetan gunetik buelta bat ematen

dugu tokia ezagutzeko eta permakulturaren printzipioak jarraituz dena nola dagoen diseinatu ikusteko”. Bisitariak lauburu formako mandala baratzea, negutegi-biofabrika gunea, lurreko presa autoeraikia edota fruitu-arbolen guneak ezagutuko dituzte.

“Ekoherririkin eta kolektiboekin lotuta egon da urteetan permakultura, eta familia mailako esperientzia gutxi zeuden, ustiapen txikikoak”. Hutsune hori betetzeko asmoz sortu zuen Permacultura Aralar, eta hutsune hori betetzeko asmoz jarraitu nahi du lanean. “Permakultura utopiatzat duen jendea badago, zerbait perfektutzat duena. Landa eremuko jendea, berriz, oso eszeptikoa izan ohi da gaiarekin. Ni erdibidean nago, nolabait: batez ere hiriko jendea zuzentzen natzaio, eta ez nabil nekazariak konbentzitzen lan horrela egin dezaten. Baina nire asmoa bada gauzak beste era batera egin daitezkeela ikusaraztea”. ■



943 64 17 10
www.endanea.com
Jaitzubia 40, Hondarribia

Baratzeta eta hiri baratzeta

Presta ezazu zure baratzeta.
Gehitu sasoiko landareak
eta gozatu zuk ekoiztutako
barazki ekologikoez.








azoka

Gure Errepublikan eman eta hartuz, denok ongi bizi gaitezen elkar zaintzen dugu. Sartu Azokan eta ikusi ARGIA Jendeak komunitateari musutruk eman dizkion gaiak. Oraindik ez bazara ARGIAkoa, oraintxu duzu egiteko aukera.

Dagoeneko erabiltzen ez dituzun gauzak, edo norberak etxean, lanean, militantzian egindakoak ARGIA Jendeari emateko aukera dugu. ARGIAko komunitatearen arteko harremanak bultzatuko ditugu horrela. Indartu dezagun indartzen gaituena!

Twitterrez jarraitzeko: @argiaAzoka

www.argia.eus/azoka

EULEN-EUSKALDUNA: JAUREGIKO FOKUEN ATZEALDEA ARGITZEN DUEN DUINTASUNA

2017ko udan Eulen azpikontrataren bidez Euskalduna Jauregiarentzat lan egiten zuten bi langile ELA-ren egoitzara gerturatu ziren, urte luzez jasandako lan eta soldata degradazioaz nazkatuta, euren egoera hobetzen saiatzeko enpresarekin gatazka ireki bat hastearen aukera planteatzeko asmoz. Horrela hasi zen, 6 hilabete geroago, euren lan-baldintzen eta soldataren hobekuntza esanguratsua ekarriko zuen prozesua, zeinetan langileek erakutsitako sendotasunaren ondorioz, enpresak bere burua hauen eskariak onartzeraz behartua ikusi zuen.

Ezaugarriak:

- Egilea: Iker de Luz eta Peio Salazar.
- Argitaletxea: Manu Robles Arangiz Institutua.
- Edizio urtea: 2018ko apirila.
- Orrialde kopurua: 24.



ARGIA Jendearentzat musutruk

ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun beste liburu batzuk:



Occidental Bilbao Hotela

Hoteletako garbitzaileen errealitatea eta borroka erakusten du Aiala Elorrietak idatzitako liburu berriak. Argitaratzailea: Manu Robles Arangiz Institutua.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Alferreko proiektu handi inposatuak eta euren mundua

Julien Milanesik VI. Nazioarteko Foroan emandako hitzaldiaren transkripzio euskaratua.

ARGIA Jendearentzat musutruk



Hitzak. Zeruko ARGIAko 60ko hamarkadako elkarrizketa hautatuak

Egilea: Pilar Agirre.

ARGIA Jendearentzat musutruk

Nola aukeratu du ARGIAk lankide berria?



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“ARGIAk lanpostu bat eskaintzen du. baldintza: ez gipuzkoarra eta ez gizonetzkoa”. Gogoratzen zara orain bizpahiru hilabete zabaldutako iragar-ki horrekin, irakurle? Niri barettxoa eragin zidan hasieran, “orain ere ari dira berenak egiten ARGIAko hauek”, pentsatu nuen. Baina albistearen mamira jota, ulertu nituen gauzak hobeto. Erredakzioiko hamabi kideetik hamar gizonetzkoak dira, eta hamabitik hamar Gipuzkoakoak. Estatistikak baino gauza argiagorik...

Hitzetan geratu gabe praktikara eraman nahi izan ditu bere oinarriak ARGIAko lantaldeak. Lankide berriaren hautaketa koherentziaz egin. Lehen le-erroetan irakurritakoa zen deialdiko baldintza bakarra, eta lauogeita hamar bat curriculum bildu dituzte. Lehen sailkapena jasotako informazioarekin egin da, lurraldeka banatu ostean. Esperientzia izan da aurreneko galbahea, baina ez komunikabide batean edo bestean izandakoarena soilik; egingo duen lanari lotutako esperientzia baizik. Garrantzia eman zaie bakoitzak egindako argitalpenei, baina kontutuan izanda formatu ezberdinak: komunikabideetako publikazioez aparte, norberak bere kasa sortu eta elikatutako blogak, ekimen indartsuei sare sozialetan egindako jarraipena...

Hogeit bat lagun enizenak mahai-gai-ean, zein baino zein hobeak, hurrengo pausoa lurralde-aukeraketa izan da. Bizkaia saritua. Beste lurraldeetan bertako hedabideek lan handia egiten dutela baloratu da, Hala Bedi, Arabako Alea, Ahotsa.info, Euskal Irratiak... eta lizentzia libreei esker ARGIAk berera ekartzen ditu artikulua eta albiste asko. Bizkaian nabaritu dute hutsune komunikatiborik handiena, eta aldi berean bertan bizi da euskal biztanleriaren er-



Bere urtebetetze egunean elkartu zen ARGIAkoekin kafea hartzeko: “Zorionak! Ene, jakin bagenu, beste egun bat jar genezakeen!”. “Batek daki, agian zerbait onik ekarriko dit” izan zen bere erantzuna.

dia. Zehazki Bilbon bizi eta mugituko den langilearen aldeko hautua egin du erredakzio taldeak. Gizarte mugimenduak pilpilean daude bertan, eta agian hauek gaztelerazko harreman sare eta komunikabideekin lotura handiagoa badute ere, ARGIAren helburua bada haien berriak euskaraz idatziz eragile horiekin sarea jostea.

Elkarriketen txanda iritsi da.

Kalderapeko tabernan egin dute zita, kafea hartuz elkarriketa ahalik eta normalena izateko asmoz, azterketa kutsua arindu nahian. Isil eta lotsati azaldu da neska gaztea, hitzak ondo neurtuz. Ez du beste hedabideetan esperientzia handirik, baina gurean blog bat zabaldu zuen, eta gustuko du luma astintzea. Aurten literatur sari bat jaso du. Konbentzitu egin ditu ARGIAko kideak “nire bizitzarekin eta pentsamenduekin koherentzian dagoen lan bat bilatzen dut, eta ARGIA bete betean hori da” esaldiarekin.

Ez jo sinadura ezagunenetara, irakurle, ARGIAk ez du izen famaturik kontratatu. Baina gogotsu dator. Zure esku uzten dut asmatzea. ■



Susa literatura

@armiarma

[#Hemeroteka]

1921eko apirilaren 24an ARGIA sortu zen



Susa literatura

@armiarma

1936ko uztailaren 19an plazaratu zuten lehen aro horretako azken ARGIA aldizkaria



Susa literatura

@armiarma

7.000 liburu kritika batu ditugu armiarma sarean 2001etik hona. Azken zazpi urteotan:

- Berria 440 kritika.
- Diario Vasco + Correo 344 k.
- Argia 263 k.
- Gara 196 k.
- Noticias Gipuzkoa + Deia 160 k.

Broken Brothers Brass Band

MUSIKA BELTZEN TXERTAKETA

Iruñeko Broken Brothers Brass Band-aren izenari lotzen dizkiogu Atlantiko Beltza eta Mardi Gras, Iruñea Nola eta Second Line-a. Amama Luisa Brass Banden hondarretatik jaio zen taldea eta 2012an euren lehen lana argitaratu zutenetik, bide oparoa egiten ari dira. Laugarren lana kaleratu dute: *Txertaketa* (Gaztelupeko Hotsak). Denetarik txertatu dute bertan, eta jarraituko dute, dudarik balego.



Xalba Ramirez

@xalbaram

ARGAZKIAK: BROKEN BROTHERS

2016an atera zuten *Ildoa Landuz* orain arteko azken lana. Mugarria izan zen taldearen ibilbidean, baina ez inora urruntzeko –mugarriak adiera horrekin ere erabili ohi dira–, hurbiltzeko baizik, Iruñerriari bertatik bertara abesten zion diskoa izan zen eta. *Txertaketa*-k, ildo beretik jarraituz, lokaletik egiten du kantu: “Bertatik bertarako musika egiten dugu”, dio Ion Celestinok, taldearen buru ipurtarinak.

New Orleans-eko Brass Bandak –txar-rangak esan genezake–, oinarri hartuta sortu zuten taldea, hango doinuak, taldeak eta ereduak hona ekarritz. Lehen bi diskoetan jazz klasiko horri eutsi diote gehiago, baina azken bietan askeago dabilta eta funka, gospela eta hip-hop-a nahastu egiten dira, erritmo latindar eta groove pisutsuagoekin.



Moises No Duerme Barañaingo musikariak egin die grabaketa eta nahasketa Barañaingo La Naben eta Iruñerriko Sustraian Records zigiluarekin argitaratu dute. Musika beltzaren inguruan sortu dira azken bi egitasmoak, hain ohikoak diren talde eta estiloen arteko uztartetarako espazioak izanik biak: esperimentazioa eta komunitatea.

Diskoari irekiera eta itxiera ematen dioten kantak *Agur Jaunak*-en bertsio jazzero bana dira. Introan, drum and bassak lagunduta, hiletara bidean doan desfilea irudikatu dezakegu. Jakina da New Orleanseko elizkizunetan Brass Banda hilotzaren atzean joaten dela musika jotzen, eta atzean, second line-ean, senide eta lagunak dantzan, bizitza os-

patzen. Outroa aldiz, solemneagoa da, perkusiorik gabe, barne gogoetaren la-saitasunera bidaiatzeko.

Detroit Motown zen bezala, Iruñea ere Motor City gisa irudikatu zuen azken diskoan Balerdi Balerdi nafar power pop talde mitikoak, eta kanta horren bertsioa da *Monstruito Special*. Celestinok “aspalditik” egiten zuen Motor





Cityaren txantxa, eta Balerdikoen kanta oinarri hartuta, oihukatuko dute “gu gara! Bagatoz!”.

Jarraian etorriko da greba mugagaberako deia. Broken Sisters-en –Nerea Erbiti, Terela Gradín eta Silvia Pérez– melodia altu horrek haur koro bat iruditu dezake, baina infantilismoari kontrapuntua jarriko diote Hedoi Etxarteren hitzek, modu xaloan landuz klase borroka: “Erraza da, nagusia ez bazara ulertuko duzu”.

Martin & Marcela, DJ remix latino bat dirudiena, Iruñeko DJ Budin-i omenalditxo da. Pertsonari, eta ordezkatzaren duenari. “Gauza oso lokaletatik unibertsalak diren kantak egitea ere gustatzen zaigu. Kanta honetan, DJak bezala, kanta zatiak hartu ditugu eta kanta osoan barrera nahastu. Jolas moduko bat da horiek bilatu ahal izatea”.

Xuri guztiak ez dira irinak kantan dator rap astun eta jostaria. Diskoan ahotsekin jolasteko aukera handiagoa izan dute, eta hori da *Txertaketa*-n nabarmendu daitekeena eta zuzenekoetatik bereizi, “kalean hainbeste ñabar-dura ematea zailagoa delako”. Kalean “group chant” eta antifonaren bidez abesten dute: galdera-erantzunen ko-roekin, alegia.

Paul Gilroy-k *Atlantiko Beltza* liburuan jasotzen duenaren arabera, abestutako elkarriketa hauek musika beltzaren oinarri handienetako bat dira, une demokratiko eta komunitarioak sortzen dituztenak, eta antifonaren bitartez, harreman sozial ez-menderatzailerak sinbolizatzen dituztenak.

Geure gainetik izarrak bakarrik, da galdera erantzunaren adibide hoberena. 2016an Barañainen egin ziren Gazte-raiki topaketetarako egin zuten kanta Brokenekoek Hedoi Etxarterekin, eta topaketei leloa jartzen bukatu zuen. “Hiriari himnoak emateko” sortutako kanta horietako bat, dudarik gabe.

Ezjakintasunaren kateak suntsitu

Euskal rockaren zaleei atentzioa deitu zien diskoan Dut-en bertsio bat egin izan-nak. Post-hardcorea eta jazz? Ba bai, eta hasieratik gainera. Izan ere, *Ezjakintasunaren kateak suntsitu* kanta Miles Davis-en *Jean Pierre* kantaren melodia zatiekin eginga dago: “Garai horretan hasi nintzen hip-hopa entzuten, eta euskaraz deskubritu izanak txundituta utzi ninduen. Sentsazioa daukat Duten lehen lan hori ahanzturan gelditu dela, baina niretzako oso aktuala da oraindik”.

Duteko kideekin harremanetan jarri zen Celestino kanta grabatzerako orduan eta leloan erabiltzen den ingelesezko sample-a nondik lortu ote zitekeen galdetu zien. Erantzuna: ezetz, ez zela sample bat. Antza, Dutekoak diskoa grabatzen ari zirela, Hondarribitik jamaikar mutil bat agertu zen, eta euren diskoan zer edo zer sartuko zuela esan zien. Esan eta egin, aipatu “samplea” zuzeneko inprobisazio bat baino ez zen izan.

Lokaltasunetik kantatzea da Brokenekoek –eta New Orleansetik ikasita-koaren– beste osagai nagusietako bat. Abestia egin diote Iruñean Espainiako Poliziaren eskuetan hil zen Elhadji

Ndiaye-ri –lehendik ere *Bizitza da handiena - Dundu ñuule amna solo* eginga zuten–. Africa United Brigade taldekoek abestu dute bertan, komunitatea ehuntzearen beste adibide on bat.

Iruñea After Barcina

Estiloa baino gehiago hartu dute Brokenek New Orleansetik. 2005. urtean izandako Katrina urakanaren ostean egindako festan inspiratu ziren Nafarroan aldaketaren hauteskundeak ospatzeko. UPNrik gabeko Iruñea “Nola?” eraiki. Galderak daukan erantzun posibleetako bat eskaini zuten: festa eta dantza beharrezkoak dira.

Baina musika beltza askotan festarako musika bezala iritsi izan da bakarrik Euskal Herrira, eta orokorrean mende balde zurira, Celestinoren esanetan. “Jatorrian politikarekin harreman zuzena du musika beltzak, arrazoi ebidentengatik. Guk musika beltza egin nahi badugu, konexioak bilatu behar ditugu, baina ezin da fotokopia bat izan. Bertako arazoei bertako mezuekin erantzun behar diegu, eta bertako estilo nahasketekin ere bai. Horregatik gaude beti irekita txertaketa berrietara”.

Iruñea Nola kolektiboa ez dela plannifikatutako zerbait argi dute bertako konspiratzaile guztiek. Celestinorentzat, “gerrillaren gerra bezalakoa izan da. Hainbat jende eta lagun bildu gara, eta gure harremanak oinarri sortu genuen dinamika”. Izandako eraginaz galdetuta ez du hain argi Celestinok. “Gauza berriak sortu baino, lehendik zetozen mugimenduei ikusgarritasuna eman

» **ION CELESTINO:**

“Guk musika beltza egin nahi badugu, konexioak bilatu behar ditugu, baina ezin da fotokopia bat izan. Bertako arazoei bertako mezuekin erantzun behar diegu, eta bertako estilo nahasketekin ere bai”

zaie agian, eta estilo ezberdinak mugiro beraren parte egin ditugu”.

Izan ere, musika beltza ez da estilo bat, gehiago litzake gauzak egiteko manera bat. Gilroyentzat, “arte beltzak gaitasuna izan behar du aurkakoak diren objektu eta elementuak erabiltzeko eta inolako esfortzurik eragiten ez duena-

ren itxura eman behar du. Fresko eta erraza eman behar du. Izerdia eginarazi badizu, ez duzu zure lana ondo egin”.

Manera horren barruan sartuko da norbanakoaren eta taldearen dikotomia. “Led Zeppelin edo The Beatles ezin dira ulertu taldekideak gabe, musika taldeak indibiduo bihurtzen dira. Brokenekin edo Sustraiak-ekin ez da horrela gertatzen: taldekideak aldatuz doaz, eta komunitatea bihurtzen da taldearen parte. Taldeak eta musika antolatzeke eredua irauli beharra dago zentzu horretan ere”.


Gai hauek lantzeko Atlantiko Beltza topaketak antolatu zituzten Katakraken –bertako sukaldea da konspirazio iturri nagusia, *Gumbo Ibaiertzean* kantak aitortzen duen bezala–: liburuak, eztabaidak eta musikaren teoria izan ziren ardatza.

80ko hamarkadatik etorri diren hainbat paradigmarekin hautsi beharraz mintzatu ziren jardunaldiotan. Bi zentzutan: gauzak nola antolatu eta gauzak nola abesten diren. “Rockaren aroa agortua dagoela eta gauza diferentek –berriak ez, ziurrenik– egiten saiatu

behar dugula uste dugu. Eta geroz eta zabalduago dago gogoeta hau Euskal Herrian ere”.

Gitarretatik askatzeko garaia zela zioten jardunaldi horietan. “Gitarrak ez dio himno bakar bat eman hiri honi azken urteetan”, entzuten da Soundcloudera igo duten interbentzio batean. Bistan da, sinbolo gisa hartua dela gitarra, baina badu zerbait egiatik: “Punkaren garaiko estetikak eta leloak errepikatzeak ez du ezertarako balio. Kamustuta daude eta autoparodia bihurtu dira”. Eredua aldatzea hori dakarte, besteak beste, Iruñea Nolakoek, eta Brokenekoek, DjReimy, The Titanians, DJ Budinek eta Skabideanekoek. Mezu berriak, irudi berriak, eta molde berriak.

Urteroko zitarik ez da faltako Iruñea Nolakoentzat: maiatzaren 20an Maravillas Gaztetxetik abiatuta Errotxapekora egingo da aurtengo second line-a. Musika beltza, eta haren zentzu politiko askatzailea izango da bertaratzen diren oinatzetan: bizitza delako handiena, eta ospatu behar. Eta himnoak festak ekarri beharko ditu. Eta alderantziz, noski. ■



427 sekuen edizioa

aizu!

Jose Angel Iribar
Etxeko jokalaria

LEIRE ETXANIZ ARIN-ARIN • 25 URTEKO ERAZTUN BERDEA • LARRUNEN GEROA EZBAIAN • EIBARKO ARMAGINTZA MUSEORA BISITA • 'GERRA HEMEN HASTEN DA' DOKUMENTALA, MARTXAN

Kalean da maiatzeko

aizu!

- Leire Etxaniz arin-arin
- 25 urteko eraztun berdea
- Larrunen geroa ezbaian
- Eibarko Armagintza Museora bisita
- 'Gerra hemen hasten da' dokumentala, martxan

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Besteenak ere badirenak



Xabier Etxaniz Erle

Baratzuri, Zapatari txikia, Txoritxoaren arrautza, Erregea eta gatza, Errotariaren txakurra eta Txori kantaria. Horiexek dira, bost horiek, Juan Kruz Igerabidek jaso eta moldatu dituen ipuinak bilduma berri honetarako.

"Ipuinak munduan bizi dira, herrialde batek bestera mugituz, hizkuntza batetik bestera eraldatuz, laburtuz, luzatuz, beste ipuin batzuekin nahasiz". Hauxe da liburuaren hitzaurreko lehen esaldia, eta herri ipuinen jatorri aberats bezain ugariaren berri ematen diguna. Eta aurrerago, hitzaurre horretan onartzen duen bezala, ipuin hauek "gure etxean kontatzen ditugun moduan daude idatziak", jakinda ipuinon aldaera ugari egon daitezkeela. *Erregea eta gatza* ipuinaren bertsioen artean bada Joxe Arratibelek eskuratu zigun *Marixor* ezaguna, esaterako. Azken honetan, hitzaurrean adierazi bezala, "haren jantzia hasieran lihozkoa zen, gero zilarrezkoa, eta azkenik urrezkoa, umea emakume bihurtzeko aldaketa psikologikoa zehatzago irudikatuz".


Ez naiz hemen arituko bost herri ipuin hauek komentatzen, gomendagarriak dira eta gure kultura hobeto ezagutzeko balio izateaz gain, gureak izateaz gain besteenak ere badira. Garrantzitsuagoa iruditzen zait, hemen bederen, ipuin hauen kontakizuna nola aurkezten zaigun liburu honetan. Alde batetik idazlearen ekarpena dugu, kontakizuna gaurkotuz eta erraztuz, amaierako formulak landuz, ipuina-

Euskal Herrietako ipuinak

JUAN KRUZ IGERABIDE

Ilustrazioak:
Elena Odriozola.
Denonartean, 2017.
55 orrialde.
Gazteentzat.

Juan Kruz Igerabide Sarasola idazlea (Aduna, 1956).



ren amaieran ageri diren esaldi horiek ederkki landuz. Izan ere, aipatzekoak dira Igerabidek egindako hautaketak eta kontakizunak.

Bestetik, azpimarragarria da Elena Odriozolak ilustrazioetan egindako lana. Lau orriren neurriko irudi klasikoak, Aurelio Arteta

Errasti ilustratzailearen airea duten irudi berrituak, guztietan keinu, ukitu propioa nabari baita jolas batean bageunde bezala. Literatura horixe baita, jolasa, disfrutatzea, ondo pasatzeko unea.

Irakurtzeko kontu errazak aurkezten zaizkigu liburu honetan, ozenki irakurtzeko modukoak, gure tradizioan murgiltzeko bidea erakusten diguten istorio eta ilustrazioen bidez irakurlea une atseginera eramango duten kontakizunak. Eta Juan Kruz Igerabidek hitzaurrean dioen bezala, "hegan egin dezatela zure irudimenean barrena, eta ernaldu bitez zure lurrean". ■

» KONTZERTUA

Zirrara eta musika



Montse Auzmendi del Solar

Jakin-min ikaragarria sortu zuen Calixto Bieitok zuzendutako Bach-en *Johannes-Passion* oratorioak Arriaga Antzokian. Obra ederrenetako bat dugu, indartsua, sakona, Martin Luterok egindako Bibliaren itzulpenean oinarrituta.

Baina ez genuen topatu erreferentziazko bertsio arrunt bat. Aldez aurretik esan behar dut kritika hau oso pertsonala izango dela, eta esango dudanak ez duela zalantzan jartzen eskainitako apustuaren kalitatea edo berrikuntza saiakera txalogarria. Izan ere, begi-bistan zegoen publikoarengana iritsi zela obraren mamia edo mezua eta hori da helburu garrantzitsuenetako bat espektakulu guztietan.

Esandakoarekin, konturatu zarete ez zitzaidala bereziki gustatu ikusi eta entzundakoa. Nahiz eta aitortu meritu handiko ikuskizuna zela, entzule edo publiko bezala, ez nekien zertan zentratu horren aurrean. Suposatzen da antzezpenarekin lortu nahi zena zen Bach-en musikak adierazi nahi duen pasio bortitza hori aurre-aurrean ipintzea, *Johannes-Passion* obrak duen samurtasuna ezkutatu. Eta, zakarkeri edo baldarkeri puntu batekin topatu ginen, ezinegona transmitituz. Ez dakit beharrezkoa zen, eta ez mindulinkeriagatik, baizik eta ezinezkoa zelako arreta mantentzea benetan garrantzitsua

**Bach-en
Johannes Passion
antzeztutako
oratorioa**

BILBAO ORKESTRA
SINFONIKOA / BILBOKO
OPERA KORUA

Zuzendaria: Erik Nielsen.

Eszena zuzendaria:

Calixto Bieito.

Eszenografia:

Aida-Leonor Guardia.

Bakarlariak:

Joshua Ellicott, James Newby,
Jonathan McGovern, Carlos
Mena, Berit Norbakken Solset
eta Robert Murray.

den alderdian: musikan. Bestalde, gogoeta bat utzi nahiko nuke: Bach-en musikak ez du indar nahikorik? Gehigarri horiek behar al ditu? Ez dut uste. Edo, publikoak halakorik behar du Bach-en mamira iristeko? Horretan, bai, zalantzak ditut.

Hau guztia esanda, Arriaga Antzokiko akustika lehorra alde batera utzita, emaitza musikala benetan duina izan zen. Bakarlariak ongi bete zituzten beren paperak, nahiz eta askotan oso konplikatua zen ahotso ederki kolokatzeari etzanda, makurtuta edo holako postura zailetan. Joshua Ellicott tenoreak *Evangelista* akatsgabean egin zuen, adierazkorra, eta James Newby tenorearekin batera, bakarlari onenak izan ziren saio honetan. Newby gazteak interpretazio izugarria egin zuen, sakona eta sinesgarria. Aktuazio konbentzigarria egin zuten baita ere Jonathan McGovern baxuak,

Pilatos-en rolean, eta Carlos Menak. Berit Norbakken Solset soprano norvegiarra distiraz aritu zen. Bilboko Opera Koruak garrantzi eszeniko inportantea izan zuen, eta adoretz bete zuten lana. Bilbao Orkestra Sinfonikoa, berriz, doia iritsi zitzaigun. ■



"Johannes Passion" eskaini zuen taldea Arriaga antzokian.

MARISOL RAMIREZ

Ez du gehiago atertuko

GIZA ESKUBIDEEN XVI. ZINEMALDIA

Filmak:

Human Flow (Ai Weiwei)

eta *El baile de los años* (Ados Teatroa).

Noiz: apirilaren 20an.

Non: Donostian, Victoria Eugenia antzokian.




Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

Ostiral gaua da Donostian. Giza Eskubideen XVI. Zinemaldirako bidea hartu duzu; Kursaleko zubia pasa, bizikleta hesi bati lotu eta Victoria Eugenia sartu zara. Amnistia Internazionalako txaleko horiz jantzita doan gizonak Tanner Kiliç eta Idil Eser aktibisten askatasunaren aldeko esku-orri bat banatu dizu, eta hori irakurriaz itxaron diozu emanaldiari.

Begoña del Teso azaldu da agertokian, berandutu gabe. Badaki Ai Weiweiren *Human Flow* (Giza marea) film-dokumentalaren zain zaudetela, bere 144 minutuekin, agindutako irudi izugarriekin. Del Tesoren esanetan, ez dakizue, alta, gaueko egiazko protagonistak film laburrean datozela, Ados Teatroaren *El baile de los años* (Urteen dantza) lanean. Bezperan bukatu zuten, eta zeluloidea balitz oraindik umela legokeela dio Del Tesok. Adineko jendearen bazterketari dantzaren bidez heltzen dio proiektuak, eta, azkenerako, hunkitu egin zaitu.



Ai Weiwei zuzendaria 'Human Flow' filmari buruzko aurkezpen batean.

Txalo jo eta, orain bai, hasi da *Human Flow*. Aldez aurretik dakizuna zera da: Weiwei artista eta zinemagile txinatarrak bi urte eman ditu 23 herrialdetan errefuxiatuen eta migrazioen auzia lantzen, zeharkatu ditu Siria, Afganistan, Bangladesh, Turkia, Iraq, Mexiko, Kenia, Grezia, Kurdistan, Italia, Palestina... eta, azkena, taldeko argazkilarietako bat, Yasser Murtaja, erail dutela Gazako frontean, duela aste gutxi. Apenas dagoen fikzioarako marjinarik hemen. Droneekin hartutako irudi ikusgarriek berehala bete dute aretoa, ezer berri berririk ez, halere; tragediaren gorpuzak eta ahotsak bilatu ditu zuzendariak, baina azaleko puntadez josi dituela dirudi aldiro. Weiwei bera ere lehen minutuetatik agertu da kamera aurrean, eztabaidagarria dena. Bi irudirekin geratu zara, eta zugan biziko dira gaurdanik: kamerari bizkarra emanik, hizketan hasi eta oinazearen itolarriz oka egiten duen andrea; eta behi belztu bat, hezur

huts, sutan dagoen zero baten azpiko kale mortuetan balantzan.

Jendea tantaka hasi da ateratzen aretotik; gero eta hutsago dago ohar-tzerako. Zuri ere luze egiten ari zaizu kontakizuna. Bilatutako zerbait izan daitekeela diozu, ezleku kriminal batera kondenatuen denboraren pisura hurbildu dadin zure denbora tarte batez. Eta iruditu zaizu denek alde eginda ere, proiektioak hor jarraitu ahal izango lukeela, etengabe bortxaz desplazatua izaten ari den jende masaren antzera, atergabe.

Baina agortu dira 144 minutuak. Goizeko ordu bata eta erdiren bueltan atera zara kanpora, eta begi errean aurrean agertzen zaizuna Donostia da, zerurik ez sutan, kanpalekurik ez bistan. Bizikleta hesitik askatu bitartean, kopa artean daudenen algara ozenak datozkizu ondoko terrazatik. Eta sinetsi gura zenuke ez zarela ehuneko ehun sartu aurreko berbera. ■

Hitz gezidunak

ILE PILA, MORDO	↓	SENDO, IRMO LOGURA	↓	ERORI ADITZAREN INFINITIBOA	↓	1500 ERROMATAR ZENBAKIZ NAHASTE	↓	ERREPIKAPE- NA ADIERAZ- TEKO EDARI ALKOHOLDUN	↓	ZARETEN HAUEK TREBEAK	↓	AZA-BARIE- TATEA ZORAKERIA	↓
↓	→	↓		↓	→	↓		↓		↓		↓	
BELDURTI INDARRA ERABILIZ	→			↓			ERAKETA ANPEREA	→					
↓							↓			UZKUR, ZAPALDU NANOTESLA	→		
ARRESKE	Ez EME ELKARTE	→						↓			NONGO ATZIZKIA MINGRANA	→	
↓	↓		PERTSO- NAIAREN IZENA						HERDOIL IRRI	→	↓		
LEGEZ BERKE- LIOAREN IKURRA	→		↓					↓					
↓		URANIAO AGORTU ADITZAREN INFINITIBOA	→						PORTUA OKER, DESEGOKI	→			
SUITZAKO IBAIA ARGITAL- DARIA, EDITORIALA	→	↓		DAGO MUSKULU- UZKURDURA	↓	GUHAUR BEHAR, ZEREGIN	↓	TONA ERREP, LOGURAREN EULIA	→	SODIOAREN IKURRA ERDI HITZ- ELKARTETAN	→		ELIKATU
↓				↓		↓		↓		↓		JOULE BI ERRO- MATAR ZENBAKIZ	→
PILOTARI NAFARRA ZEIN PERTSO- NAREKIN	→				AUSARTASUN BAT ERROMATAR ZENBAKIZ	→						↓	
↓				↓			EZ HANDI EZ TXIKI	→					

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

9							1	
		4				3		7
	1		6	3		4	9	
	9		3	8				2
			9		7			
1				6	4		3	
	5	1		2	3		7	
7		9				8		
	6							1

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Sortzaile.
2. Teilapeko ganbara.
3. Norabait.
4. Grinak.
5. Egoki.

Ebazpenak

9	8	3	7	4	5	2	1	6
6	6	2	4	1	9	8	3	5
7	5	4	1	7	6	3	2	4
8	4	9	5	3	8	1	2	4
2	2	3	6	9	5	7	1	8
4	1	7	8	2	6	4	9	3
5	8	5	1	4	2	3	6	7
9	7	4	9	5	1	6	8	2
3	6	2	8	7	9	5	4	1
3	8	3	6	7	9	5	4	1

1. Egile, 2. Ganer, 3.
Inora, 4. Lerak, 5.
Erako.

N	A	B	G	E	M		B	Z	V
P	L	O	T	R	O	D	I	G	U
G	O	S	A	E	O	S	A	E	Z
O	R	R	O	R	E	A	N	I	K
R	E	R	O	K	I	N		E	R
N	O	R	E	K	I	N		E	R
A	V	A	R	D		G	T	N	A
W	G	I	T	A	L	E	T	X	E
A	G	O	N	I	A	U	S	A	R
N	O	R	E	K	I	N		E	R

Juan Carlos Moreno Cabrera. Inperioaren ziztada



Madrilgo akademiatik mintzo da Juan Carlos Moreno Cabrera (Madril, 1956), zer eta espainolismo linguistikoa deitzen duen horren gehiegikeriak salatzeke. Haatik, aho bizzarik gabe dihardu, sendo, hizkuntza txikiak babestuz, eta nagusiak ziztatuz. Nafarroako hizkuntza egoeraz aritzeko etorri da Iruñera. Eta ez da kalterako: ezin hobeki islatzen da Nafarroan berak teorizatutakoa.

“Zer gutxiago, zure nazioko hizkuntza ulertzea baino?”



Ander Perez

ARGAZIAK: JOSU SANTESTEBAN

Hizkuntzen ‘frikia’

“Filosofia eta Letrak ikasi nituen, eta hizkuntzalari eta filologoa naiz; katedraduna, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Pasioz bizi ditut hizkuntzak. Are, frikia naiz: euskara ikasi nuen bere gramatika egiturak liluratuta, non eta Madrilén. Unescoko hainbat batzordetan aritu naiz, eta obra zabala dut hizkuntzalaritzaren eremuan. Hizkuntza nagusi eta txikien arteko menpekotasun harremanak ditut ikergai. Baina ez naiz ikertzearekin konformatzen: dibulgazioa da nire nahia”.

Zer da espainolismo linguistikoa?

Espainiera inguruko hizkuntzen gainetik dagoela dioen ideologia da. Horren arabera, espainiera da hizkuntzarik erabilgarriena, ikasteko errazena, komunikaziorako eta elkarbizitzarako egokiena. Pertsonen eta instituzioen diskurtsoetan txertatutako ideia da. Eta ideologia ikusezina da, ontzat ematen dena, ezbaian jarri gabe. Jendeak ez du antzematen, eta ideia horiek normalak direla uste du, berezkoak. Hala, espainiar hizkuntza supremazismoa zalantzan jartzen duen oro arazotzat jotzen da, distortsionat, elkarbizitza zapuzten duen ideia identitariotzat.

Gainerako hizkuntzak dira arazo.

Bai. Ideologia espainolistaren arabera, espainiera modu naturalean hedatzen den gasaren parekoa da. Hedapen horren ondorioz, zokoratuta geratu dira beste hainbat hizkuntza, baina ez espainieraren erruz, espainierak hedatzeko berezko joera duelako baizik, eta beste hizkuntzek murrizteko berezko joera. Erabat faltsua da hori.

Zein da ideologia honen arrazoia?

Besterik gabe, botere harremanak daude, nazio zapaltzaile eta zapalduak. Hori bai, garrantzitsuena da nazio zapaltzaile zapaltzaile dela ez igartzea, besteen begitara zapaltzaile gisara agertzen den unean hasi daitekeelako jendea zalantzan jartzen. Horregatik, egoera natural eta saihestezin gisara aurkezten da, denen onerako gertatu den egoera gisara. Menpekotasun harremanak egoera objektibo natural gisara aurkezten dira, eta horiekin lotzen da gizartearen garapena.

Nafarroa ez da salbuespen.

Nafarroan gaztelera da elkarbizitza eta komunikaziorako hizkuntza normala. Eta pentsa, gaztelera ez da Nafarroako jatorrizko hizkuntza ere, nafar-aragoiera baita Nafarroako berezko hizkuntza erromanikoa. Gaztelera gero etorri zen, eta arrazoi politiko, demografiko eta ekonomikoengatik inposatu zen. Hala ere, Nafarroaren garapena eta idiosinkrasia gaztelarak osatzen duela esaten da, eta hori zalantzan jartzeak Nafarroaren atzerapena dakar.



"Euskararen ulermena derrigorrezkoa izatea da nafar euskaldunek beren hizkuntz eskubideak gauzatu ahal izateko modu bakarra".

Nafar guztiek jakin beharko lukete euskara?

Bai, are gehiago kontuan hartuta ofizialtasuna... ofiziala al da euskara Nafarroan?

Tira, eremuaren arabera.

Egia! Hori ikaragarritzko erokeria da. Euskarak Nafarroa osoan behar du izan hizkuntza ofiziala. Bestela, ematen du hiru Nafarroa daudela. Nafarroa entitate geografiko, politiko eta historiko bakarra bada, euskarak Nafarroa osoan beharko luke hizkuntza ofiziala, eta beraz, bertako pertsona guztiek jakin beharko lukete, edo behintzat ulertu. Ulertzeak, izan ere, ez dakar inposizio-rik. Euskararen ulermena derrigorrezkoa izatea da nafar euskaldunek beren hizkuntz eskubideak gauzatu ahal izateko modu bakarra, hitz egiten jarraitu ahalko luketelako, besteak ulertuko diola jakinda. Urrats garrantzitsua litzateke hori, bai Nafarroako kohesiorako, bai elkarbizitzarako, bai eta kulturarako ere. Zer gutxiago, zure nazioko hizkuntza ulertzea baino?

Ingeleseko hezkuntza lerroak indartu dira azkenaldian. Zer dakar horrek?

Arazoa da, hasteko, ingelesa ez dela Nafarroako hizkuntza, ez dela inoiz izan, eta ez dela inoiz izango. Ingelesa euskara edo gaztelaniaren mailara jartzea erokeria da, eta ondorio latzak izan ditzake. Ingelesak atzerriko hizkuntzen artean du bere tokia. Euskararen pare jartzea Troiako zaldi bat jartzea da, euskara baztertzen jarraitu ahal izateko. Horrek, berriro ere, hizkuntza supremazismoa erakusten du, ingelesa ez baita ezinbesteko hizkuntza. Hizkuntza onuragarri eta interesgarria da, eta ongi dago ikastea, baina ez da ezinbestekoa. Bada beste arazo bat: ingelesak ateak ireki ditzake ongi hitz eginez gero; baina ateak ixten ditu gaizki hitz egiten bada. Eta, hara, ingelesa ikasten duen jendearen %80ak gaizki hitz egiten du.

Etorkizuna ziurtatua al du euskarak?

Ez, bultzatzeari uzten bazaio. Nagusitasun politiko, ekonomiko eta ideologiko mugagabea duen hizkuntza menderatzaile batekin bizi den hizkuntza bat


beti dago arriskuan. Horregatik, ezin da arreta galdu, Irlandan gertatu dena gertatzen delako bestela: irlandar gaelikoa oso hizkuntza boteretsu baten alboan bizi da, eta desagertzeko arriskuan dago, derrigorrezkoa izan eta eskoletan erakutsi arren. Beraz, inbertitzen eta hizkuntza bultzatzen jarraitu behar da.

Hizkuntza nagusia beti egongo da hor, baita balizko independentzia kasu batean ere.

Bai. Armeniak, adibidez, SESBetik aterra eta independentzia lortu zuen, eta armeniera da hizkuntza ofizial bakarra. Liburuen %70, ordea, errusieraz dago. Zergatik? 200 milioi hitzun dituen estatua duelako alboan. Horregatik, Harry Potter-en azken liburua errusierara itzuli-ta dago, baina ez armenierara. Eta umeak errusieraz irakurri behar izaten du.

Estatuak, beraz, ez du hizkuntzaren bizi-raupena bermatzen?

Ez. Hitzunek erabiltzen duten neurrian biziraungo du euskarak, baina erakundeen babesa beharko da horretarako. ■



Egunak dira epailea komunean dela, ezin libratu. Handik erantzun dizkigu galderak.

“La Manadakoak aske” esan duen epailea triste dago

La Manadako bost bortxatzaileen, barkatu, sexu abusatzaileen kontrako auzian absoluzioaren alde egin duen epailearekin, Ricardo Javier González jaunarekin hitz bi trukatu ditu Beranduegi, epaia irakurri eta gutxira. Buru-makur eta negar zotinka topatu dugu:

B: Gogorra behar du izan; bada zure burua udaletxeko mastiletik eskegita ikusi nahi duenik...

RJG: Hala da, ezin dut egoera jasan. Sufritzen ari naiz, egin dudana eta gero, La Manadako seigarren ‘kolega’ izaten ez didate utzi. Bakarrik sentitzen naiz.

Begira, gainera, neska hori ez da hil ez ezer, ez dago horrela jarri beharrik. Denok sufritzen ditugu abusuak eguneroan. Beitu hor pareko ume horri, nola kendu dioten otartekoa bost handikoteran artean. Hori bortxaketa al da? Ez, ezta? Ba hori. Handikote horiek gauza oso inportantea erakutsi diote mukitsu horri: Ez eraman otartekorik hain agerian, denen bistan, gose direnak probokatzen. Hain zaila al da ulertzen? Sarri ematen du, neskatoak bozkatzeko, galtzak janzten eta erretzen utzi genienetik ez dutela ezer eboluzionatu.

SAREAN ARRANTZATUA

Itzultzaileak barrenak hustu ditu



Las Toa Party



Kanboko Gazte Topagunetik parrandan ari zen gazte batek “ekintza etilikoen amaiera” iragarri du

Duela 18 urte Kanboko Gazte Topagunean lehenbiziko gaupasa egin zuen Kepa Sakolegi dimoztarrak eta geroztik ez da etxera itzuli. Baina orain, iragarpen garrantzitsua egin du: parrandak behin betiko utziko ditu eta hori ziurtatzeko, maiatzaren 4an dena hasi zen lekura itzuliko da, ekitaldi ofizial bat egiteko. Nazioarteko egiaztatzaileek, Sakolegiren katxi, zahato, speed poltsa

eta “Gora Euskadi” txano guztiak erre-kisatuko dituzte. “Itxi gabe zegoen azken tabernako telebistan Kanbo aipatu zuten aurrekoan, ez dakit zergatik, eta orduan akordatu nintzen nola hasi zen dena, nondik atera nintzen eta nora itzuli behar dudana”, adierazi du Sakolegik. Bere gurasoek adierazi dutenez, gela oso bat prest daukate, Ibuprofenoz beteta, bihar esnatzen denerako.



ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



Bizkaia

ERRENTA RENTA 17

MAIATZAREN 2TIK EKAINAREN 29RA
DEL 2 DE MAYO AL 29 DE JUNIO

ERRENTA ETA ONDARE AITORPENA
DECLARACIÓN DE RENTA Y PATRIMONIO